





HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN JARDUNBIDE EGOKIAK NAFARROAN

Argitaratzailea: Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua. Nafarroako Gobernua

Edukiak: Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua, katalogoan aurkezten diren ekimenek emandako informazioa oinarri hartuta.

Irudiak: aurkeztutako ekimen bakoitzak emandakoak; 3. orrialdekoak Javier Garcíarenak eta 20. orrialdetik 22.era bitartekoak cAnicca-renak dira.

Diseinua eta maketazioa: Javier García | todocambia.com



Nafarroako Gobernuak bi urtean behin egiten du herritarren parte-hartzearen jardunbide egokien aitortzarako deialdia. Aitortzak horretarako osatutako epaimahai batek eztabaidatu ondoren ematen dira.

Dokumentu honetan, 2016-2017, 2018-2019, 2020-2021 eta 2022-2023 deialdietan aitortutako jardunbide egokiak bildu dira.

Edizio gehiago egin ahala, esperientzia praktikoen katalogo honetan sartzen joanen dira.

Dokumentu honetan ematen dugun informazioa aitortutako proposamenen laburpen bat da, beste entitate batzuentzat inspirazio iturri izateko.

CONTENIDO

JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN-HEZKUNTZAREN NAFARROAKO ESTRATEGIA - ENEAS 2030	5
TXIS PUN SFK _ SAN FRANTZISKO ESKOLA PUBLIKOAREN ZAHARBERRITZE INTEGRALA LANKIDETZAN DISEINATZEKO PROZESUA	7
SARE ELKARTEAREN PARTE HARTZEKO PLAN ESTRATEGIKOA.....	10
LESAKAKO ALONDEGIA BERRASMATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA.....	13
HAUR ETA NERABEEI ARRETA ETA BABESA EMATEKO ETA HAIEN FAMILIAK, ESKUBIDEAK ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO FORU LEGEA EGITEKO PARTE-HARTZE PROZESUA.....	16
VIDAAS – GARAPEN AUTONOMO AKTIBO ETA OSASUNTSURAKO ABANGOARDIA ETA BERRIKUNTZA	19
MIMUKAI	22
ERRONKARIBARKO ESKOLA ZAHARRETARAKO PROPOSAMEN BAT - BELAUNALDIEN ARTEKO GUNE BAT	25
KILI-KILI	28
HERRI ATSEGINAK ADINEKOEKIN: CORELLA ATSEGINA, LERIN ATSEGINA, BURGI ATSEGINA	31
BAKAIKURI BURUZKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA EGITEKO PARTE- HARTZE PROZESUA.....	34
ETXARRI ARANAZKO PLAZA INGURUA HOBETZEKO PARTE-HARTZE PROZESUA (2017-2018)	37
BIZIKIDETZA PLANA. GIZARTEAREN ETA BIZILEKUAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOA ETA ESKU HARTZEA, MURCHANTEN.....	40
NIRE AUZOA, NIRE JOLASTOKIA / MI BARRIO, MI PATIO	43
NAFARROAKO HONDAKINEN PLANEKO HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUA (2017-2027).....	46
NAFARROAKO ERRIBERAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESKUALDE ESTRATEGIA (NE EAEE).....	49
LEITZA KONTSUMITUZ / CONSUMIENDO LEITZA	52

JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN-HEZKUNTZAREN NAFARROAKO ESTRATEGIA - ENEAS 2030

HARREMANETARAKO DATUAK

Ingurumen Zuzendaritza Nagusia. Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzua. Ingurumen Hezkuntzaren Bulegoa. Nafarroako Gobernua

📄 González Tablas, 7 | 31005 Iruña

✉️ educacion.ambiental@navarra.es

☎️ 848 42 64 11

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA


Munduak egoera konplexua bizi du ingurumen nahiz gizarte aldetik, eta horrek ezinbestean eramaten gaitu planetarekin eta ingurunearekin ditugun harremanak berrik planteatzera.

Egintza arauemaile eta adierazpen instituzional ugarik eskatzen diete administrazio publikoei eta, oro har, gizarte-erakunde guztiei egungo klima- eta ingurumen-larrialdiko egoerari zorroztasunez heltzeko neurriak har ditzatela.

Jasangarritasunerako Ingurumen-hezkuntzaren Nafarroako Estrategiak (ENEAS 2030) testuinguru bat, jarraibide batzuk eta lan-esparru bat eskaini nahi ditu 2030era arte Nafarroan jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako planak eta programak diseinatzeko eta abian jartzeko.

HELBURUAK

✓ Nafarroako herritarren ingurumen-arazoei buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa sustatzea.



- ✓ Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza Nafarroako Gobernuaren politika publikoetan txertatzen laguntzea.
- ✓ Ingurunearekin erlazionatzeko dugun moduan aldaketa bultzatzea, jasangarritasunerako bidean sakontzeko eta bide hori bizkortzeko.
- ✓ Nafarroako Gobernuak bultzatu behar dituen ingurumen-politikak babestea tresna sozialen bidez.
- ✓ Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzan ikuspegi anitza txertatzea.



- ✓ Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzan Nafarroako lurralde-errealitatetik begiratzea.

INDARGUNEAK

- ✓ Estrategia babesten duen arau-oinarria sendoa da.
- ✓ Kalitatezko hezkuntza-sistema publikoa.
- ✓ Gizarte-adostasun zabala ingurumen-politikak hartzeari dagokionez.
- ✓ Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzan gizarte-eragile ugari daude inplikaturik.
- ✓ Nafarroako lurralde-antolamendua.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Diziplina anitzeko ikuspegia, estrategiari ekiteko erronka dena.
- ✓ Gizarteko sektore jakin batzuk inplikatzeko zailtasuna.
- ✓ Ez da erraza luzera begira lan egitea (2030 da jomuga).

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Herritarrak prozesuan inplikaturik daude, batez ere jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzari lotutako profesionalak
- ✓ Kanpoko laguntza parte-hartze prozesuaren diseinuan eta dinamizazioan (Garrapo SL)
- ✓ Inplikazio handia dute Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileek eta prozesuaren buru izateko ardura duten NIKeo langileek.



IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

- ✓ Funtsezkoa da aldez aurretik eragile giltzariak mapatzea eta parte-hartze prozesuan aktibatzea.
- ✓ Barneko parte-hartzea (Nafarroako Gobernua) eta herritarren parte-hartzea (publikoa).
- ✓ Garrantzitsua da hedapen-ekintzak egitea sare sozialetan eta prentsan.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

- ✓ Estrategia 2023ko maiatzean onartu ondoren, bertan deskribatutako gobernantza-eredua hasi zen, eta, 2024ko ekainean, 2023-2025 aldirako I. Ekintza Plana onartu da, aldi horretan gauzatu beharreko 45 neurri biltzen dituena.

EKIMENA DENBORAN ZEHAZKUTZEKO GAKOAK

- ✓ Gobernantza-eredua osatzen dugun erakundeen arteko sare-lana.
- ✓ Komunikazio eraginkorra, etengabea eta arina lantaldean.
- ✓ Lankidetzak estua Hezkuntza Departamentuarekin.
- ✓ Lan paraleloa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin, Jasangarritasunerako Ingurumen-hezkuntzaren Ekintza Planaren esparruan.



TXIS PUN SFK _ SAN FRANTZISKO ESKOLA PUBLIKOAREN ZAHARBERRITZE INTEGRALA LANKIDETZAN DISEINATZEKO PROZESUA

HARREMANETARAKO DATUAK

San Frantzisko Eskola Publikoko Familien Elkartea


- San Frantzisko plaza z.g.
31001 Iruña
- sfkogurasoelkartea@gmail.com
- 623 04 17 62

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

San Frantzisko eskola 1905eko maiatzaren 9an inauguratu zuten. 1902an hasi ziren eraikitzen, 3.000 metro karratu ditu eta 4 solairu: sotoa, beheko solairua, lehen solairua eta bigarren solairua edo teilatupea.

Gaur egun, San Frantzisko ikastetxe publikoak jatorrizko eraikina mantentzen du, San Frantzisko plazan, Iruñeko alde zaharrean. Iruñeko Udalarena da, eta 400 ikasle baino gehiago hartzen ditu bere geletan, hiru hizkuntza-eredutan (A, D eta G) goizez, eta hainbat jardueratarako ere erabiltzen da arratsaldeetan eta asteburuetan.

Askotariko erabilerak izan arren, eraikinak eraikuntza-gabeziak ditu, eta, batzuetan, arriskuak ere eragiten dizkie erabiltzaileei.



2022ko irailean egungo egoera aztertu ondoren, 2023ko zuzenketa bat eskatu zitzaion Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari.

Eskaera horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eta Iruñeko Udalak hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horren arabera, «proiektu hau idazteko, ikastetxeko



hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa beharko da, eremu pedagogikoei eta eraikinareen erabilerari dagokienez».

Horregatik guztiagatik, 2023ko apiriletik ekainera bitartean, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren laguntzarekin, partaidetza-prozesu bat garatu zen ikastetxeko hezkuntza-komunitateak eta Iruñeko hirigune historikoko eragile eta entitateek San Frantziskoren zaharberritze integrala lankidetzan diseinatzeko. Helburu nagusia da ikastetxeak behar dituen jarduerak formulatu eta garatu ahal izatea.

HELBURUAK

- ✓ Lankidetzak-espazioak sortzea hezkuntza-komunitateko eragileen eta partaidetza-prozesuan inplikaturako herritarren artean, San Frantzisko eskolan hezkuntza-espazioak birpentsatzeko.
- ✓ Espazio horien beharrei eta potentzialtasunari buruzko gogoeta kolektiboa egitea, hezkuntza-garapenerako eta erabiltzaileen inklusioa errazteko elementuak izan daitezten.

INDARGUNEAK

Prozesuaren diseinuan eta garapenean azpimarratzeko moduko zerbait izan da askotariko eragileak inplikatu direla. Aniztasun hori erdietsi da proiektuak lortu duelako ikastetxearen komunitatera hurbiltzea eta hura inplikatzeko, hezkuntza-espazioak eraldatzeko proposamen batetik harago, eta, elkarrekin, hurbileko errealitatea lankidetzak-prozesu baten bidez eraldatu duelako.



AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

Aurkitutako zailtasun nagusia partaidetza-prozesuen berezkoa izan da: parte-hartzailengan espektatibak sortzea.

Halako prozesuetan, ekintza kolektiboaren emaitzen gaineko segurtasunik ez izateak, hau da, lortutako emaitzak azken proiektuak idaztean kontuan hartuko direla bermatua ez izateak, kalte egiten die motibazioari eta inplikazioari.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

Proiektu hau kolektiboki sortu da, hezkuntza-komunitateko hainbat eragilarekin batera: familiak eta ikasleak, irakasleak, komunitateko eragileak, San Frantzisko Eskola Publikoko Familiaren Elkarteak eta auzoko bizilagunak.

Baita erakunde publikoekin ere, proiektu honetan eta haren gauzatzean Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak ere parte hartzen baitute.

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

Hirigintza parte-hartzailea hiria eta haren elementuak ulertzea bilatzen duen ikuspegia da, lankidetzaren bidez eta herritarren ahalgunduko dituzten hiri-estrategien sustapenaren bidez.

Proiektu honetan proposatzen diren jarduerak hezkuntza-komunitatetik bertatik abiatu dira (bottom-up), eta horregatik tokikoa eta heterogeneoa da. Ekintza horiek espontaneoak dira, eta erabiltzailea da subjektu aktiboa, eraldaketarako interesa plazaratzen duena.



Proiektu txikia da, tokian tokikoa, baina Nafarroako eskola askoren antzeko ezaugarriak ditu. Horren ondorioz, oso erraza da erreplikatzea zaharberritzeren bat behar duten eskola guztietan; eta, bestalde, urte batzuk pasata errepikatu ohi da premia.

Hedaduraz, proiektuak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu. Tresna horiek antzeko prozesuak egiteko sare sozialen edo komunitate antolatuen sorrera sustatu eta bultzatu dezakete.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

Auzoko eskola publikoa hezkuntzarako eskubidea bermatzen duen ezinbesteko elementuetako bat da.

Haren elementu pedagogikoen egokitasuna, espazioak barne, ezinbesteko tresnak dira eskubide hori garatzeko eta lurraldeko gizar-te-desberdintasunak arintzeko.

Kalitatezko hezkuntza-espazioak bermatzeak eragin zuzena du haurren eta bizilagunen ongizatean.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

«Hirien konfigurazioa, herritarren partaidetza eta horien administrazioa berriz pentsatzera eramaten duen eztabaida bat dago. Gure auzoek egiturazko eraldaketa multzo baten zuzeneko inpaktua pairatzen dute (...).

Garai aldaketa bat da, hirietako espazioarekin lotuta dagoena, eta aldaketa prozesu soziokul-

tural horrek ibilbide pertsonal eta kolektiboak finkatuko ditu. Ibilbide horiek askotariko eragileak ezagutu beharra ekarriko dute eurekin, baita horiek arazo publikoen agenda politikoan sartzea ere. Baliabideak egotearekin edo ez egotearekin lotutako arazo bat da, eta alderdi sozialari gagozkiola, halako arazoetarako konponbideak elkarrekin asmatzeko kulturarik ez egotearekin lotutakoa» (Brugué, 2009).

Haurren bizipenari dagokionez, Tonuccik hau nabarmentzen du: «hiri giroaren zatikatzeak eta haren arriskugarritasunak galarazi egiten die hurrei beren garapen kognitibo, emozional eta sozialerako funtsezkoak diren esperientzia batzuk bizitzea» (Tonucci, 2015).

Eskola osoko espazioak aukera eman behar die hurrei ikertzeko, esperimendatzeko, beren burua probatzeko eta elkar topatzeko. Nolanahi ere, maiz topatzen ditugu ikasgela itxiak dituzten eskolak, arbelera begiratzen duten ikasle haiez eta zementuzko jolastokiz beteak (San Frantzisko ikastetxe publikoa, kasu), maldarik eta naturarik gabeko jolastokiekin, non askotan futbol zelaiak espazio gehiena hartzen baitu. Horrelako tokiek ez dute jolas aberasgarri, irudimentsu eta askotarikorik, eta honenbestez, ez dituzte behar bezala betetzen haurren premiak.

Bestalde, genero berdintasunari gagozkio-la, «espazioaren erabilera ez da berdintasunezkoa, eta normalki ikusezinak diren botere harremanen arabera funtzionatzen du; botere harreman horiek ezinbestean aldatu behar dira, banakoen artean sexuaren araberako tratu desberdinkeriak betikotuko baitira bestela» (Marina Subirats eta Amparo Tomé, 2010).



SARE ELKARTEAREN PARTE HARTZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

HARREMANETARAKO DATUAK

Sare Elkartea

- 📍 Sueca Hiria kalea 5, behea
31014 Iruña
- ✉ sare@pangea.org
- ☎ 948 38 41 49

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

SARE elkartea GKE bat da, onura publikoko deklaratu. 1993an sortu zen. GIBak kutsaturiko pertsonen arreta integrala ematen diegu, honako hauek izanik gure ekintzaren ardatza: sostengu sozio-emozionala, osasunaren sustapena, prebentzioa eta giza eskubideen defentsa genero ikuspegitik.

30 urte baino gehiago daramagu GIB/hiesa duten pertsonen eskubideen eta ongizatearen aldeko borrokan. Denbora horretan, GIBa edo hiesa duten ehunka gizon eta emakumeri lagundu diegu. Lehenengo urteetan, heriotza- eta dolu-prozesuetan akonpainamendua egin genuen. Pandemia hori asko aldatu da hasi ginenetik, asko aurreratu da medikuntza eta tratamenduetan, gaur egun ia inor ez baita hiesaren ondorioz hiltzen. Baina oraindik asko dago egiteko prebentzioan eta diskriminazioaren eta estigmaren aurkako borrokan.

Sare ibilbide luzeko erakundea da, komunitatean aitortua. Elkarte guztietan bezala, ba-



zkideen inplikazioa eta boluntario-lanak bere DNaren eta jarduteko gaitasunaren funtsezko alderdiak dira. Inplikazio hori denboran gal daiteke hainbat arrazoiengatik: bazkideen belaraldi-erreleboa, komunitatearen parte-hartze beharraren ikusgarritasun eskasa, eta abar.

Diseina eta ezar daitezkeen hobekuntza-proposamenak elkarteen gizarte- eta finantza-osasunari eusteko prozesuaren parte dira. Hobekuntza-prozesu bati ekin ahal izateko,



elkarte honek bere helburuak eguneratzea proposatzen du "prospekzio-begirada" batetik, nora joan nahi den jakitea, "nola"ri arreta eman ahal izateko.

Plan hau egiteak elkarteko kide guztien parte-hartzea sustatzen du, iritzirako bideak sortuz. Prozesuak berak barne-komunikazioa eta gizarte-oinarriaren parte-hartzea hobetu ditu erakundearen proiektuetan.

HELBURUAK

- ✓ Sareren ahulezien eta indarguneen azterketa eta diagnostikoa.
- ✓ Hautemandako erronkak Sare elkartearen ekosisteman txertatzea.
- ✓ Elkarriketa zabaltzea eta adimen kolektiboa eta sortzailea deitzea.
- ✓ Jasotako informazioa erakundearentzat garrantzitsuak diren irizpideen inguruan antolatzea.
- ✓ Aurretik bildutako informazioa etorkizunera proiektatzea.
- ✓ Prospektiba tresna bat da, erakunde batek duen ikuspegiarekin konektatzen dena, pertsonak berriz konektatuz parte hartzeko duten motibazioarekin.
- ✓ Datozen urteetarako plan estrategiko inklusibo eta parte-hartzaile bat ezartzea, "Sare ekosistemaren" zati guztien parte-hartzea barne hartzen duena.



INDARGUNEAK

- ✓ Taldearen ezaugarriak, talentuak eta motibazioa: orotariko emakumeak, aniztasuna, adorea eta indarra.
- ✓ Pertsona motibatuak, ezinezkorik ez dagoela uste dutenak eta Saren egiten denaren garrantziaz jabetzen direnak.
- ✓ Maitasuna eta elkarri laguntzea lan-giroaren parte dira.
- ✓ Sormena eta berrikuntza taldearen ezaugarrien parte dira.
- ✓ Rol bakoitzaren argitasuna: nor bere lana argi du eta arduraz egiten du.
- ✓ Iraunkortasuna: Sare aktibo dago 1992tik, eta, beraz, 30 urte daramatza arlo publikoaren esparruan: prestigioa eta konfiantza erakundean.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Finantzaketa: dirulaguntzen beharrak epe eta zeregin estuak sortzen ditu, eta horrek nolabaiteko ziurgabetasuna eta estresa eragiten ditu. Ezin da jakin lanpostuan jarraituko den ala ez.
- ✓ Lan-bolumen handia. Hausnartzeko, biltzeko, elkarrekin garbitzeko eta ordenatzeko denborarik eza. Premiazkoa denak garrantzitsua dena estaltzen du.
- ✓ Egitura-premia: egiturarik ezak inkomunikazioa eta neke fisiko eta mentala eragiten ditu; modu definituago eta argiago batean antolatzeko zailtasuna.



- ✓ Muga ezabaketa arlo pertsonalaren eta profesionalaren artean: izateko eta egiteko estilo "militante" bat da, emaitzak eta epeak (dirulaguntzak) ongizate pertsonalaren (osasuna barne) aurretik jarrita. Zaintza pertsonalaren beharra izanez gero, besteek epaitzen ahal gaituzte. Zaila da eustea (burn-out arriskua).

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Jatorritik "zainketak" egiten dituen erakundea gara. Komunitatearen "espirituaren" garapena erakunde-erresilientziako tresna gisa ikusten dugu.
- ✓ Aliantzak ezinbesteko tresna estrategikoa dira Sare elkartearen proposamenen ahalegina eta eragina hobetzeko.

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

- ✓ Sarek elkarren mendeko diren elementu erlazionatuen ekosistema gisa funtzionatzen du. Erakundearen beraren zaintza estrategiak dira prozesu hau detektatzea ahalbidetu duten berrikuntzetako bat. Oso garrantzitsua da komunitatea eta elkartea hobetzeko, eta, aldi berean, komunitateko gizarte-sareari laguntzeko.

- ✓ Programak behar bezala garatzeko behar diren aliantzak hobetzea ezinbesteko elementua da egungo eta etorkizuneko programen garapena egonkortzeko.
- ✓ Finantza-egonkortasunaren beharra funtsezko elementua da. Lan-prekarietatea galga bat da programak garatzeko, eta lan-arrisku bat langileentzat. Prozesuan hainbat proposamen sortu dira, eta horiek, zorionez, egonkortasunean aurreratzea ekar dezakete.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

Elkarte horrek Plan Estrategikoaren urteko ebaluazioa proposatzen du, ikaskuntza-prozesu gisa. Emaitzak behatzeaz gain, prozesuen kalitatea, komunikazioa, erabakiak hartzea eta langileen, boluntarioen eta erabiltzaileen (GIBa dutenak eta haien hurbilekoak) ongizatea ere behatu nahi dira.

EKIMENA DENBORAN ZEHAZ MANTENTZEKO GAKOAK

Urteko ebaluazio horri esker, halaber, proposatutako ekintza batzuk doitzen ahalko dira, beharrezkotzat jotzen bada, eta azkar egokituko da sor daitezkeen gizarte-agertokiak.



LESAKAKO ALONDEGIA BERRASMATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

HARREMANETARAKO DATUAK

Lesakako Udala

- Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka
- udala@lesaka.eus
- 948 63 70 05

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Lesakako Udalak erabilerarik gabeko eraikin bat du herriaren erdigunean, eta askotariko aukerak eskaintzen ditu.


Horregatik, nahiz eta buruan hainbat ideia izan, Udalak erabaki zuen partaidetza-prozesu hau egitea eta komunitatea proiektu baten inguruan indartzea.

Prozesu horretan, hasieran gaikako bilerak egin ziren, eta haietan udalerrriaren egungo egoeraren irudia zehaztu zen: beharrak, indarrak, mehatxuak...

Prozesu horretan, zenbait elkartek, norbanakok, kultura-taldek eta teknikariek hartu zuten parte.

HELBURUAK

- ✓ Ariketa kolektibo bat egitea Lesakaren arazoak eta beharrak hautemateko.



- ✓ Zehaztea zer beharri erantzun behar dien Alondegia eraikinak, eta zertarako erabili nahi dugun.
- ✓ Prozesuan zehaztutako lehentasunak indartzea eta abiaraztea.
- ✓ Herriko beharrak eta arazoak detektatzea eta hausnarketa kolektiboa egitea.



- ✓ Kolektibo bakoitzak bere beharrak mahai gainean jartzea, baina besteenak ere entzutea, eta baterako konponbideak bilatzea.
- ✓ Komunitatea indartzea.
- ✓ Udalaren eta herritarren arteko harremana indartzea.

INDARGUNEAK

- ✓ 970 parte-hartzaile entzute-fasean (% 57 emakumeak eta % 43 gizonak). Horietatik 16 haurrak ziren. 30 kolektibo, guztira.
- ✓ Hausnarketa kolektiboaren fasean: 28 lehen bileran (% 70 emakumeak) eta 30 bigarrenaren (% 56 emakumeak).



EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

- ✓ Proposamen bat baino gehiago egon zen, eta prozesuan guztiak aztertu ziren, baina denen artean bakar bat zehaztu zen.
- ✓ Azken aukera izan zen eraikina tokiko garapenerako, prestakuntzarako eta enplegarako zentro edo laborategi gisa erabiltzea.
- ✓ Halaber, asmoa zentroaren bidez sareak ehuntzea kolektibo, enpresa eta elkarte publiko nahiz pribatuen artean.




ALONDEGIAK ZER BEHARREI ERANTZUNGO DIE ETORKIZUNEAN?

BI LEHENTASUN ZEHAZTU DIRA:

Herrian enplegu berriak eta tokiko garapen jasangarria bultzatzea, horretarako trebakuntza eta bitartekak eskainiz.

Herrigintza eta elkartegintza garatzeko espazio partekatu bat sortzea, elkarteei eta herritarrei antolatzeke eta ekiteko aterpea eskainiko diena eta beren arteko sinergiak bultzatuz dituen.

PRINTZIPIOAK



ERABILERA ANITZAK



EGUNGO ERABILTZAILEEI LEKU BAT BERMATZEA



ARDURA KOLEKTIBOA ETA HERRI-IKUSPEGIA



BEGIRADA LUZEA



IZAERA ETA JABETZA PUBLIKOA MANTENTZEA



UDALAREN KONPROMISOA

PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

32 ERAGILE

4 ERAKUNDE

Lesakako Udala, eta Cederna Garalur garapen-agentzia, Euskararen Mankomunitatea eta Gizarte Zerbitzuen mankomunitatea.

82 LAGUN

% 56 emakumeak eta %44 gizonak

ABIATZEA

ENTZUTE-FASEA

HAUSNARKETA-
KOLEKTIBOA

SOZIALIZAZIOA

Lesakako Udalak partaidetza-prozesu bat bultzatu du **Alondegiaren etorkizuneko erabilera(k) herritarrekin batera landu eta erabakitze**ko.

Zeharkako helburu hauek ere landu dira:


- **Erronka eta behar kolektiboei erantzun kolektiboak** ematea.
- **Lesakako arazoak eta beharrak** identifikatzea eta horien inguruko **gogoeta kolektiboa** egitea.
- **Komunitatea** sendotzea: Eraile eta herritarrek elkar ezagutu, elkarrekin lan egin eta harremanak sendotzea.
- **Udalaren eta herritarren arteko zubiak** eraikitzen jarraitzea, gauzak elkarrekin landu eta erabaitzeko kulturen sakonduz.

ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA

2. SOLAIRUA ETA GANBARA

HELBURU NAGUSIAK

- Herrian lan egiteko aukera berriak sortzea.
- Ekintzailletza, berrikuntza eta sormen-ekonomia bultzatzea.
- Eraldaketa ekonomikoa bultzatzea, sozialki justua eta ingurumenari begira jasangarria.



HERRIGINTZA

1. SOLAIRUA

HELBURU NAGUSIAK

- Udalerriko elkarte, sektore eta mugimendu bakoitzari behar duenerako aterpea eskaintzea.
- Elkarte eta mugimenduen arteko ezagutza bultzatzea eta elkarriketan jartzea, sinergiak bilatuz.
- Udalerriaren gaur egungo erronken inguruko elkarriketa eta gogoeta bultzatzea.

BI ESPAZIOEN ARTEKO LOTURA
ETA SINERGIAK SORTUKO DITUGU,
EREMUAK ELKARRIKETAN ETA
ELKAR-EGINTZAN JARRIZ.

EGITASMOAREN OINARRIAK

- Alondegia izango da eskualdearen garapen ekonomiko jasangarria bultzatzeko epizentroa, Cederna Garalur garapen-agentziaren gidaritzapean eta Lesakako Udalarrekin eta eskualdekoekin batera.
- Enpresa-inkubagailua: proiektu itsasargia eta akonpainamendua.
- Berrikuntzarako aholkularitza, negozioa berritu edo berri bat sortu nahi dutenentzat.
- Coworkingerako espazio kolaboratiboa: etxetik edo bakarka lan egiten dutenak bertatik lan egin ahal izateko, elkarrengandik ikasiz.
- Loturak eskualdeko guneekin eta zonaldeko lanbide zentroarekin.
- Trebakuntza orokorrak eta espezializatuak.

sormena eta berrikuntza
ekintzailletza kolaboratiboa
tokiko garapen jasangarria
trebakuntza eta akonpainamendua
ARDATZ NAGUSIAK

herrigintza
erronka komunei begira
elkarlana eta elkarriketa

EGITASMOAREN OINARRIAK

- Elkarte, sektore eta mugimenduak (antolatuak) eta antolatu gabeko herritarrak erabiltzeko gunea. Taldeek bere bulego-lanak egiteko espazio ireki bat, lanerako mahai eta ordenagailuekin.
- Bilera-gelak, panel edo paretak mugikorrek beharretara egokitzea.
- Erabilera anitzeko gela handiago bat.
- Espazio partekatua eta informal bat.
- Taldeen material arina gordetzeko armairuak.
- Espazioa sortzeaz gain, pentsatu beharko dugu zer eta nola egin gau egungo erronken inguruko gogoetak bultzatzeko, eta, baita taldeen arteko sinergiak sortzeko ere. Erronken inguruko jardunadiak Alondegiaren erabiltzearen elkarlanean prestatu.

HAUR ETA NERABEEI ARRETA ETA BABESA EMATEKO ETA HAIEN FAMILIAK, ESKUBIDEAK ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO FORU LEGEA EGITEKO PARTE-HARTZE PROZESUA

HARREMANETARAKO DATUAK

Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako
Departamentua

📠 González Tablas, 7 | 31005 Iruña

✉ info.derechosociales@navarra.es

☎ 848 42 69 00


PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko eta familia, adingabeen eskubideak eta berdintasuna sustatzeko foru legearen aurreproiektua Nafarroako Foru Komunitatearen Eskubide Sozialetako Departamentuak landu du, legeak ukitzen dituen pertsonen zuzendutako parte-hartze prozesu baten bidez haien beharrak, ekarpenak eta iradokizunak jaso ondotik.

Haur eta nerabeen benetako parte-hartze aktiboarekin Nafarroan osatu den lehen lege aurreproiektua izan da. Horretaz gainera, parte hartu dute familiak, hezkuntzan lan egiten duten profesionalak, eta beste zerbitzu publiko batzuetan aritzen direnek ere.


GAUZATZE ALDIA

2020ko urritik 2022ko maiatzera (legea onetsi zen data).



HELBURUAK

- ✓ Haurren parte-hartzea sustatzea.
- ✓ Adingabeen eskubideak bermatzea, gehien ukitzen dituzten eta/edo interesatzen zaizkien arloetan.
- ✓ Adingabeei arreta modu koordinatuan eta sareko lanaren bidez emateko metodologia eguneratzea.
- ✓ Adingabeak babesteko sistemarako tresna berriak garatzea.



- ✓ Araua prestatzerakoan jende gehiagok parte hartzea, eta horri esker arau zuzenagoa eta onartuagoa izatea, eta ustez betetze handiagoa eta indarraldi luzeagoa ere izatea.

EKIMENAREN ZENBAIT GAKO

- ✓ Parte-hartze handia.
- ✓ Barnean sartutako eragileen arteko koordinazioa.
- ✓ Metodologia eta materialak haurrentzat egokitzea.
- ✓ Material didaktikoa eta datuak modu sinple eta adeitsuan jasotzea.
- ✓ Parte-hartzaileei prozesuaren faseen berri ematea.
- ✓ Amaierako ospakizuna eta parte-hartzea jendaurrean eskertzea.

ABIAPUNTUKO IRIZPIDEAK

- ✓ Estatuko legea Nafarroara egokitzeke beharra.
- ✓ Legea egitea barnean sartutako eragile guztien adostasunarekin.
- ✓ Haurren parte-hartzea sustatzea.

PROZESUARI BURUZKO ZENBAIT ZIFRA

Prozesuaren helburuaren abiapuntua izan da onetsi beharreko arau berriak ukitutako ahotsik gehienen parte-hartzea bultzatzea, iritzi, proposamen, datu eta esperientzia guztiak biltzea eta askotariko ezagutza, adin eta errealitateak kontuan izatea.

Parte hartu dute 162 helduk (129 emakumezko eta 33 gizonezko) eta 332 adingabek (166

emakumezko eta 166 gizonezko). Horiei gehitu behar zaizkie 91 emakumek, 31 gizonek eta 2 ez-binariok betetako 124 galdera-sorta. Oso-tara, beraz, 618 parte-hartze izan da eta horietatik aurrez aurrekoak 494 izan dira.

EGINDAKO LANAK

- ✓ Eragile taldearen barne-bilerak.
- ✓ Bilerak kanpoko taldeekin.
- ✓ Lantegiak adingabe taldeekin.
- ✓ Lantegiak familia taldeekin.
- ✓ Galdera-sortak eta lantegiak Eskubide Sozialetako Departamentuko eta gizarte erakundeetako langileekin.
- ✓ Bilerak Nafarroako Gobernuarekin.
- ✓ Bilerak parlamentuko taldeekin.
- ✓ Prozesuaren amaierako elkarretaratzea, emaitzak aurkeztuz.

INDARGUNEAK

- ✓ Adingabeak, edo adingabeak babesteko sistemarekin zerikusia izan eta parte hartu duten pertsonak, asko eta askotarikoak izatea.
- ✓ Jasotako ekarpen kopuru handia.
- ✓ Emandako informazio handia, parte hartze-koa eta ekarpenen gainekoa.
- ✓ Parte-hartzaileei erantzuna azkar ematea.
- ✓ Parte-hartzaile bakoitzari egokitutako metodologia eta hizkuntza erabiltzea prozesuan.
- ✓ Askotariko bideak erabiltzea informazioa jaso eta emateko.
- ✓ Parte hartzeko ohitura, baita haurrena ere, sustatu eta sendotzeko ospakizun-ekitaldia.



- ✓ Etengabeko ebaluazioa, prozesuan zehar hobekuntzak sartzeko aukera eman duena.
- ✓ Ekarpenak ekartzea eta ondorioak ematea talde parte-hartzaileei.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Ikastetxerik ohikoenak ez direnen txostenak koordinatzea
- ✓ Barne-ekarpenak epean erdiestea

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Lantaldeak eratzea gainerako departamentuetako jendearekin.
- ✓ Parte-hartzean elkarlanean aritzea eta 12 urtez azpikoekin aritzeko metodologian adituak.
- ✓ Departamentuko arduradun nagusiek bultzada berezia ematea (kontseilari andreak eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziako zuzendari kudeatzaile andreak).

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

- ✓ Ohiko bideetan parte hartzen ez duen jendeak eskuarki parte hartzen du baldin eta haren bila joaten bada.
- ✓ Onuragarria da komunikaziorako zernahi bide eta modu erabiltzea, adinen eta inguruabarren arabera.
- ✓ Errazagoa da kontsentsuak edo erabakiak hartzea, eztabaidarako eta informaziorako bide asko ematen badira eta denei epe laburrean erantzuten bazaie.
- ✓ Beste araudi edo plan batzuei transferitzeko modukoa da.



EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

- ✓ Haurrak eta nerabeak kontuan hartzen segitzea, haiek ukitzen dituzten arauak edo bestelako ekimenak tramitatzean.
- ✓ Foru legea eta hura egiteko eta haren edukia erabakitzeko parte-hartzeak izan duen garrantzia.
- ✓ Foru legean ezarritako neurriak garatzea (jardunaldiak, organoen eratzea edo dau-denak aldatzea, erregelamendu bidezko garapenak, plangintza eta ebaluaziorako prozesua hobetzea).

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

- ✓ Nerabeak eta haurrak ez baztertzea gainerako arauetan (desgaitasunari buruzko foru legean antzeko eredua erabili da).
- ✓ Baita partaide egin ditugun organoetan ere (Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluan, esaterako).
- ✓ Baita antolatu eta interesekotzat izanen direnetan ere.

PARTE-HARTZE PROZESUAN NOLA SARTU

- ▶ <https://participa.navarra.es/processes/anteproyecto-ley-foral-atencion-proteccion-infancia-adolescencia>

LABURPEN BIDEOA

- ▶ <https://www.youtube.com/watch?v=ETvi-f69Kfy0&t=1s>



VIDAAS – GARAPEN AUTONOMO AKTIBO ETA OSASUNTSURAKO ABANGOARDIA ETA BERRIKUNTZA

HARREMANETARAKO DATUAK

Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako
Departamentuaren Errealitate Sozialaren
Behatokia

📄 González Tablas, 7 | 31005 Iruña
✉ info.derechosociales@navarra.es
☎ 848 423 808

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA


Nafarroako Gobernuak desgaitasunaren eta zahartze aktibo eta osasungarri baten aldeko berrikuntza hub baten aldeko apustua egiten du.

Zahartzea, desgaitasuna eta haietatik ondorioztatutako mendekotasun-egoerak dira gizarte moduan ditugun erronketako bat. Arlo horretan handia da oso berrikuntza-ahalmena, pertsonen bizitzaren kalitatea, haien autonomia eta sistemaren jasangarritasuna hobetzeko balia daitekeena. Elkarre-ehuna oso zatituta dago, eta zailtasunak ditu proiektu berritzaileetan parte hartzeko eta unibertsitateekin eta enpresekin lotzeko. Aukera handiak galtzen ari gara, horrenbestez.

Hubak lotu nahi ditu gure behar sozialak I+D+G+an dugun gaitasunarekin eta, orobat, Nafarroa arlo honetan bihurtu nahi du berrikuntza sozial sistematizaturako gune.

GAUZATZE ALDIA

2021eko urtariletik abendura



HELBURUAK

- ✓ Gizarte erakundeak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, enpresak eta erakunde publikoak konektatzea desgaitasunaren eta zahartzearen arloetan lankidetzaren berrikuntzarako.
- ✓ Elkargune bat eta laneko metodologia bat sortzea, beharrak konponbideekin lotuko dituen.
- ✓ Gizarte erakundeen eta berrikuntzaren eragileen artean hubaren proiektuarekin ilusioa eta inplikazioa sortzea.



- ✓ Erabiltzen ez zen gune bati erabilera berria ematea.
- ✓ Barnean sartutako eragile guztien beharrak zein diren ezagutzea: gobernantza-eredua, landu beharreko gizarte-gaiak, teknologia-rik aplikagarrienak, etab.

ABIAPUNTUKO IRIZPIDEAK

- ✓ Berrikuntzarako eta coworkingerako gune bat indartzeko beharra
- ✓ Barnean sartutako eragileen askotariko beharrak zein diren ezagutzea
- ✓ Nafarroako Gobernuaren apustua berrikuntza zentroa egiteko
- ✓ Pertsonen bizi-kalitatea hobetzearen aldeko apustua
- ✓ 52 pertsonari egin zaizkie elkarrizketak: gizarte erakundeak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Aditech, zentro teknologikoak, enpresetako I+G+B-ko unitateak, enpresak, start-upak, banku-fundazioak, enpresa publikoak, CEIN, CPEN eta Nafarroako Gobernua.
- ✓ CERMINeko erakundeei egindako galdera-sortak

EGINDAKO LANAK

Metodo kualitatiboa erabiliz, banakako elkarrizketak egin ditugu, sakontasunez, eta taldeko topaketak/elkarrizketak bideokonferentziaz.

Metodo kuantitatiboa erabiliz, inkestak egin ditugu posta elektronikoaren bidez eta, haietako batzuk, telefonoz lagunduta.


Elkarrizketak parte hartzeko aldi osoan zehar egin genituen, hots, 2021eko apiriletik irailera bitartean eta, nagusiki, apiriletik maiatzera bitartean. Inkestak, berriz, 2021eko ekainean.

INDARGUNEAK

- ✓ Eragile anitzen parte-hartze prozesua: Par-taidetzazko egitura bat sortzeko prozesuan, VIDAASEk eskatzen du haren fase guztietan elkargune bat sortzea herritarren, gizarte erakundeen, unibertsitateen, zentro teknologikoen, start-upen, enpresen eta administrazio publikoaren artean.
- ✓ Berrikuntzaren demokratizazioa: Huba gune bat da, zeinetan adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak haiendako konponbideak bilatzen ahalegin daitezten.
- ✓ Publikoaren eta pribatuaren arteko erantzunkidetasuna: VIDAASEk publikoaren eta pribatuaren arteko erantzunkidetasuna bultzatzen du proiektuaren fase guztietan.
- ✓ Berrikuntza inklusiboaren egitura: Inplikazioa parte hartzeko prozesuan ez ezik, baita haren emaitzan ere.
- ✓ Sinergiak sortzea arreta-esparruen artean: Zahartzea eta desgaitasuna hub berean batzeak belaunaldien arteko oztopoak hausten ditu. Gainera, belaunaldien arteko elkarlana zeharkako ardatza da hubak bultzatuko duen zahartze aktiboaren jardura osoan.
- ✓ Kodiseinua eta kogobernantza: Interes-taldeek parte hartu dute proiektuaren kodi-seinuan, eta, gainera, kogestio eta autogestiorako aliantza sortu da.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Batetik, pandemiaren egoerak eta, bestetik, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonen, biak ala biak talde zaurgarriak izanik, arreta ematen dieten gizarte erakundeekin lan egiteak, berekin ekarri zuen elkarretaratze "masiborik" ez egitea.
- ✓ Elkarre-ehuna zatituta dago.



- ✓ Huba berrikuntza zentro modura hartzeko gune publiko bat eskura izatean izandako aldaketak.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

Esparru honetan lankidetzazko berrikuntza bultzatzen duten eragile guztien interes handia Nafarroako Gobernuaren inplikazioak, Eskubide Sozialetako Departamentuaren bitartez, huba kokatzeko gune bat eskura izatea posible egin du.

Berrikuntza hubaren diseinu teknikoaren proiektuan herritarrek parte-hartze handia izan dute, sektoreko gizarte erakundeen, unibertsitateen, erakundeen, enpresa pribatuen eta enpresa publikoen bitartez antolatuta. Partaidetzazko kodiseinua egin da.

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

- ✓ Barnean sartutako eragile guztiei balioa ematea.
- ✓ Ongi identifikatzea proiektuan parte hartzeak eragile bakoitzari zer ekarpen egiten dion eta alderdi horretara bideratzea haren kiko lanak.
- ✓ Ez gonbidatu parte hartzera eta zer bait eskatu; gonbidatu eta eman.
- ✓ Proiektuari publikoki emandako laguntza ekintzailatza sozialaren ekimenarekin, konpromisoarekin eta energiarekin osatzea.
- ✓ Alde batetik, parte-hartze zabala eta ideia berrietara irekita egoteko jarrera izatea, eta, horrekin batera, proposamenak planteatzea, proposamenek gauzak zehaztea eta aurrera egitea errazten baitute

Partaidetzazko prozesuan ekarpena egin da berrikuntza demokratizatu delako. Horretarako, elkarlanerako eraikuntza baten alde egin da, taldean. Eragileek proiektua elkarrekin diseinatu dute, ideiak ekarri dituzte, besteak esaten duena osatu dute, hark esandakoari itzuli bat eman diote...

Batera eta modu horizontzalean diseinatzeko prozesu honek eskema bertikal tradizionala ordezkatzeko du (parte-hartzaileek proposamenak egiten dituzte eta antolaketa-eragilearen ardura da haiek onartzea edo ukatzea).

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

Parte hartzeko prozesuak erraztu du VIDAAS abiatzea. Parte hartzeko prozesua izatetik pasatu da partaidetzazko gobernantza duen lankidetzazko gisa diseinatzera.

2022an, ekosistema lotzera eta proiektuak lantzeko bideratutako lehen jarduketak diseinatu ziren.

2023an, aurreikusita dago berrikuntza zentro bilakatzea, elkarretaratzeko eta coworking sozialerako toki fisiko gisa.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

Ekosistemako entitateei balio sozial eta ekonomikoa ematea. Horretarako, balio-proposamen desberdina eraiki behar da, lan praktikoa aplikatzeko berrikuntza sozialeko metodologia zorrotzetan oinarritua.

Multifinantzaketa-eskema proposatzen da.

Administrazio publikoen, unibertsitateen, enpresen, erakundeen eta erabiltzaileen laguntzez gainera, merkatura daitezkeen konponbide teknikoak eta zerbitzuen patenteak sortzeko aukera ematen du hubak. Europatik datorren finantzaketa da ekimena denboran zehar bizirik mantentzeko dagokeen bideetako bat.

Badira izan hubari lotutako zenbait proiektu:

- ✓ Zoru adimendun sentorizatua garatzea egoitzetan erorketak hautemateko.
- ✓ Murgiltze-teknologietan oinarritutako musikoterapia integratzea adinekoen egoitzetan estimulaziorako zeharkako ardatz gisa.
- ✓ Sukalde adimendun tiflo teknikoaren bilakaera ikusmen desgaitasuna duten pertsonendako.
- ✓ Lur orotako eskuzko gorpil-aulki bat garatzea landaguneetarako eta garapen bidean dauden zonetarako.
- ✓ Egoitza-zentroetan ateak irekitzeko sistema adimendun pertsonalizatua garatzea.

LABURPEN BIDEOA

- ▶ https://www.youtube.com/watch?time_continue=1&v=OnW14tEjscg&feature=emb_title

MIMUKAI

HARREMANETARAKO DATUAK

Leitzako Udala

Elbarren 1 | 31880 Leitza

leitza@leitza.eus

948 510 009

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA


Mimukai Leitzako Udalean sortu da, Ceder-na-Galalurren eta Mendialdea eskualdeko hamaika udalen (Arano, Goizueta, Areso, Araitx, Betelu, Lekunberri, Larraun, Imotz, Basaburua eta Atetz) lankidetzarekin. Eskualdea ekonomiki dinamizatzeko proiektu bat da, ekonomia sozial eta eraldatzaile propioan oinarritua.

Eskualdeak ez du enpresa-ehun sendotua eta, hori dela eta, Mimukaik garapen ekonomiko integralerako proiektu bat izan nahi du, enpresendako eta ekintzaileendako elkargune (coworking) dinamizatu bat.

Lehen planteamendu honi gehitzen zaio beste helburu bat: lehen sektorea eraldatzeko zentro bat sortzea, zeren eta udalak eta ekoizleak batera ari baitira lanean beharrei erantzuteko eta, besteak beste, egoki ikusten dute tokiko nekazarien eta abeltzainen produktuei balio erantsia ematea. Hortik sortu da Mimukai-n eraldaketa-zentro bat sortzeko proposamena.

GAUZATZE ALDIA

2021eko otsailetik ekainera



HELBURUAK

- ✓ Enpresen, ekintzaileen eta ekoizleen, eta beste eragile profesional batzuen artean lankidetzaren sustatzea.
- ✓ Tokiko eremuaren ahalmena eta balio erantsia ezagutzera ematea eta eskualdeko nekazaritza-produktuei balioa ematea.
- ✓ Larraun-Leitzaldeko ekoizleendako eraldaketa eta merkaturatzeko aukera berriak garatzea.



- ✓ Lankidetzaren errazten duten guneak (coworking) eta proiektuak abian jartzea.
- ✓ Ekintzaileria eta enplegua sustatzea.
- ✓ Energia berriztagarrien erabilera handitzea.

EKIMENAREN ZENBAIT GAKO

- ✓ Eragileen parte-hartze handia eta interes handia.
- ✓ Eragile guztien lankidetzaren eta prestasuna.
- ✓ Proiektua eragile guztien artean sortu da, erantzukizun partekatuen bitartez.

ABIAPUNTUKO IRIZPIDEAK

- ✓ Enpresendako eta pertsona ekintzaileen-dako coworkingerako gune bat izateko beharra.
- ✓ Enpresa-ehuna indartzeko beharra
- ✓ Lehen sektorea eraldatzeko zentro bat izateko beharra.

PROZESUARI BURUZKO ZENBAIT ZIFRA

Osoz, prozesu osoan 230 lagunek hartu dute parte: Emakumezkoak % 57,69 izan dira eta gizonezkoak % 42,31.

Sektorez sektore:

- ▶ Lehen sektorekoak: % 26,63
- ▶ Bigarren eta hirugarren sektoreetakoak: % 21,39

- ▶ Udal ordezkariak: % 17,90
- ▶ Herritarrak, oro har: % 12,22
- ▶ Beste batzuk: teknikariak, parte-hartzaileak (Zoom bidez), Nafarroako Gobernuordezkariak: % 21,83

Udalerrien arabera, azpimarratzekoa da parte-hartzaileen ia erdiak Leitzatik kanpokoak izatea; horrek erakusten du proiektua eskualde osoa dela:

- ▶ Leiza % 52,08
- ▶ Lekunberri % 10,93
- ▶ Basaburua % 9,89
- ▶ Larraun % 7,29
- ▶ Imotz % 4,68
- ▶ Goizueta % 4,16
- ▶ Arano % 3,64
- ▶ Areso % 3,12
- ▶ Araitz % 1,56
- ▶ Atetz % 1,56
- ▶ Betelu % 1,04

EGINDAKO LANAK

2021eko lehen seihilekoan 8 saio egin ziren, 4 multzotan banatuak

- ✓ 1. multzoa. Lehen sektorea, eraldaketa eta merkaturatzea
- ✓ 2. multzoa. Enplegua, ekintzaileria, energia
- ✓ 3. multzoa. Udalak eta Cederna-Garalur



✓ 4. multzoa. Talde osoa

Aldi berean, Leitzako Udalaren, Cederna-Garalurren eta kontratatutako aholkulari teknikoen artean aldian-aldian lan-bilerak egin ziren, zortzi saioak diseinatu eta koordinatzeko eta prozesuaren helburuak eta emaitzak gainbegiratzeko.

INDARGUNEAK

Parte-hartze prozesua eskualdeko 11 udalerritan egin zen eta hartan parte hartu zuten askotariko sektore ekonomiko eta sozialetako 200 lagun baino gehiagok. Jadanik baden sare bat izatea eta hartan tokiko eragileek koordinatuta parte hartzea

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

Parte-hartze prozesua pandemia garaian egin zen, eta, horrenbestez, osasun-agintariek ezarritako neurri eta jarraibideak zorrotz betez egin genuen lan.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

Cederna-Garalurreko garapen-eragileen inplikazioa.

Prozesu honek sortu zuen interes handia eta barnean sartutako eragileen parte-hartze handia.

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

Parte hartzeko prozesu zabal eta sakonak aukera ematen du diagnostiko oso zehatza egiteko eta helburu benetako eta egokiak ezartzeko.

Eragile guztiekin batera lan egitearen garrantzia, eragile bakoitzak dituen beharrei erantzuteko.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

Lehen fasea, garapen-zentroa, 2023ko hasieran jarriko da abian.

Bigarren fasea, obradore publikoa. Finantzaketa behar du eta zehaztapen handiagoa; beraz, denbora gehiago beharko da abian jartzeko.

EKIMENA DENBORAN ZEHAZKUNTZA MANTENTZEKO GAKOAK

Lehen fasea abian jartzea bermea da proiektua osotasunean egiteko.

LABURPEN BIDEOA

- ▶ https://www.youtube.com/watch?v=-bi-b5FEDFJ4&feature=emb_imp_woyt



ERRONKARIBARKO ESKOLA ZAHARRETARAKO PROPOSAMEN BAT - BELAUNALDIEN ARTEKO GUNE BAT

HARREMANETARAKO DATUAK

Erronkariko Udala

- 📍 Julian Gaiarre pasealeku, 1
31415 Erronkari
- ✉ ayuntamiento@roncal.es
- ☎ 948 475 039

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Pirinioak dira despopulazio-indizerik handiena duen eskualdea Nafarroan. Beste ezaugarri bat da maskulinizazioa eta herritarren zahartzea.

Bestalde, Erronkaribarko eskola zaharrak ibar-raren ondarea dira eta gaur egun erabiltzen ez den gune bat da.

Testuinguru horretan, eskolari erabilera berriak ematea elkartzeko eta guneak sortzeko aukera bat da, ezagutzen transferentzia, loturak eta zainketak sustatzeko eta Erronkaribarko komunitate-bizitzari ekarpenak egiten ahal dizkioten lanbide-profilak erakartzeko.


Proiektu honekin gune bat jarri nahi da, oro har, herritarren eta, bereziki, kolektibo zaurgarrien eskura (adinekoak eta gazteak) eta, orobat, emakumeak bultzatu nahi dira elkargune bat izan dezaten, sozializatzeko eta zernahi jardura egiteko.

GAUZATZE ALDIA

2020ko irailetik 2021eko martxora

HELBURUAK

- ✓ Adin desberdinetako jendearendako aisialdirako gune bat sortzea, Erronkariko eta Erronkaribarko herritarrei zerbitzua eman eta despopulazioa saihesteko.
- ✓ Adinduen beharrak eta zainketak aintzat hartzea (Erronkariko eta Erronkaribarko gehienak dira); belaunaldi horiei berariaz bideratutako jarduerak eginen dira, baita haien sozializazio eta ongizate fisiko eta mentale-ra bideratutako ikastaroak eta lantegiak ere.
- ✓ Herritarren parte-hartze handia, bereziki haurrena.
- ✓ Hartzaileei egokitutako metodologiak erabiltzea.



ABIAPUNTUKO IRIZPIDEAK

Erronkaribarren ez dago proiektu honekin erdietsi nahi den adin desberdinetako jendearendako gunerik. Horixe egin nahi da Erronkariko Udalak 2020an eta 2021ean egindako parte-hartze planaren bitartez.

Erronkaribarko adinekoek eta gazteek, zaharrek zein gazteek, hartu dute parte eta haien proposamenak bildu dira. Halaber, ideiak partekatzeak aukera izan dute egin diren saioetan eta hortik ondorioztatu da gune bat behar dela ondokoetarako:

- ✓ Hirugarren adinekoendako eguneko zentro bat egiteko tokia.
- ✓ Gazteendako elkargunea, adinen arabera bereizita.
- ✓ Erronkaribarko musika eskolaren eta abesbatzaren entsegu-tokia eta egoitza.
- ✓ Gaur egungo liburutegia lekuz aldatu eta handitzea: ikasketa gela, wifi konexioa, eta irakurketa txokoa, jarduerak egiteko.
- ✓ Erabilera anitzeko gela, bilerak, proiektzioak eta hitzaldiak egiteko.

EGINDAKO LANAK

1. fasea

- ✓ Testuinguruaren hasierako mapeoa
- ✓ Herritarrek hautemandako beharrak eta gu-nea erabiltzeko proposamenak biltzea
- ✓ Emaizak itzultzea

2. fasea

- ✓ Prozesuaren esparrua eta egitekoen defini-zioa
- ✓ Eragile taldea eratzea eta aurretik informa-zioa biltzea
- ✓ Ideiak hautatzea irizpideen arabera
- ✓ Proposamen bat prestatu eta baloratzea, eta jendaurrean aurkeztea

INDARGUNEAK

Proposamenak egiteko fasean 84 lagun aritu dira. Kopuru egokia da, kontuan izan behar bai-ta ibarrean 800 lagun bizi direla. Gainera, ore-katua izan da gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Parte-hartzaileak ibarreko 7 herritakoak izan ziren eta adin bat baino gehiagokoak.

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko auke-ra izateak berritzailea egin du proiektu hau. Bi adin-talde zehaztu ziren, eta belaunaldien ar-teko aniztasuna ziurtatzeko lehentasunezkoak izan ziren.

225 proposamen jaso ziren (batzuk antzekoak) eta gaien arabera sailkatu ziren: zainketa, kul-tura, aisialdia, elkarretaratzea, ekonomia eta hezkuntza.

Prozesuaren bigarren zatian talde eragile misto bat eratu zen. Ibarreko herrietako jendeak hartu zuen parte eta bileretara bertaratutakoak anitz izan ziren.

Talde eragileak ideiak iragazteko eta antolat-zeko prozesua gauzatu zuen bi hilabeteetan zehar egin ziren 7 lan-saioetan.

Gune horiek gestionatu eta kogestionatzeko ideiak jaso ziren. Zenbait guneren funtziona-mendu-esparrua udalak berak jarri beharko luke abian eta beste batzuetan gunea erabili edo kogestionatuko duten erakundeekin ados-tu beharko litzateke.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Prozesua pandemia garaian egin zen eta horrek lantaldeen eraketa mugatu zuen; gutxiago egin behar izan ziren.
- ✓ Dirulaguntzak behartu gintuen prozesua epe mugatu eta azkar batean egitera.
- ✓ Gazteek osatutako taldea izan zen kopuruz txikiena eta haien parte-hartzea izan zen zailena, ibarreko gazte gehienak kanpoan ari baitira lanean edo ikasten. Azkenean, online hartu zuten parte.
- ✓ Talde eragileak zailtasunak izatea ideiak iragazteko irizpideak finkatzean.
- ✓ Guneei lehentasuna ematea, proposatu-tako jarduera bakoitzak zer toki fisiko behar duen argi izan gabe.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Emate arloko profesionalek kanpoko la-guntza profesionala ematea.
- ✓ Prozesuaren mapeoan egindako elkarriketekin hiru kartel handi egin ziren, informazio grafikoarekin. Lan egiteko euskarri gisa era-bili ziren eta haietan honakoa jaso zen:
- ✓ 'Gure ibarra denez': elkarriketatuendako Erronkaribarren bizitza nolakoa den, trans-kribatuta.



- ✓ AMIA matrizearen bitartez ibarraren gaur egungo egoera aztertzea.
- ✓ 'Ibarrarekin ametsetan': ibarra nolakoa izan den hemendik 5 urtera.
- ✓ Proposamenak jasotzeko eskura jarri ziren bitartekoak (aurrez aurrekoak eta aurrez aurrekoak ez zirenak). Horrek berekin ekarri zuen denbora aldetiko konpromiso zenbait hartzea (iradokizunetarako buzoia jarri zen ibarreko udaletxe bakoitzean, baita helbide elektronikoa ere). Horretaz gainera, aurrez aurreko 5 lantegi egin ziren.
- ✓ Sare sozialen eta kartelen bidez hedatzea, eta bideo bat egitea.
- ✓ Haurrek eta nerabeek eskola-ordutegian hartu zuten parte eta ibarreko gizarte-hezitzailearen laguntza izan zuten.
- ✓ Gure ibarreko politikarien, teknikarien eta elkarteetako ordezkarien prestasun ona prozesu honetan parte hartzeko

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

Belaunaldien arteko proposamena, ibarrera bideratua. Gure lehen esperientzia izan da eta parte-hartzaile batzuen gogobetetasun-maila handia izan da.

Prozesuan, berdintasunezko parte-hartzean, hizkuntzaren erabileran eta talde eragilearen genero-orekan genero-ikuspegia kontuan izan bada ere, atera den proposamenean ez dago emakumeen bizitzarekin zuzenean lotutako inolako erabilerarik.

Adinekoak zaintzeko gaia ageri da (eguneko zentro bat egitea proposatu da) eta eremu pribatua gelditu ohi diren zainketak sozializatzen

lagun dezake, kontuan izan behar baita lan hori nagusiki emakumezkoek egiten dutela.

Parte-hartze prozesu horiek gure udaletako politketan sartzen joateko beharra ezinbestekoa da ibarrean bizi garen inplikazioa erdies-teko eta komunitate-sentimendua berreskuratzeko.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

Gune horren finantzaketaren eta kudeaketaren gaia lantzen segitu behar da eta, orobat, aztertu nola zain daitekeen denen ondasun arkitektoniko hori eta nola egin daitekeen jasangarriago energiari dagokionez.

Lurraldean eragileek konpromisoak hartu behar dituzte, ezinbestekoa da erabileren proposamen honetan oinarritutako plan bat egiteko.

Jadanik adostutako guneen edukia zehazten joan beharko dugu (adinekoak eta gazteak) etorkizunean izan daitezkeen beste parte-hartze prozesu batzuekin.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

Beharrezkoa da udalek eta ibarreko batzordeak konpromisoa hartzea gunea mantentzeko lanean, haren kudeaketan eta erabakiak hartzeko tenorean, eraikina Erronkarin badago ere.

Politikariek ibar osorako proiektu gisa hartu behar dute (politikarietako batzuek hartu dute parte proiektuan).

LABURPEN BIDEOA

- ▶ <https://www.youtube.com/watch?v=m-PLWmzOSSyl>



KILI-KILI

HARREMANETARAKO DATUAK

Sustraiak Guraso Elkarte

San Pedro 45 | 31797 Larraintzar

apyma.sustraiak@gmail.com


948 309 206

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektua Larraintzarko ikastetxearen proiektuaren eta hezkuntza-ingurunearen gainean hausnarketa kolektiborako beharretik sortu zen.

Behar hori agerian gelditu zen jakin zelarik Ultzamako Udalak, ikastetxearen mantentze-lanez arduratu behar zuenak, agiri tekniko bat kontratatu behar zuela eraikinaren egoera zein zen jakiteko, bai oinarrizko azpiegiturretan, bai guneak erronka sozial, teknologiko eta ingurumenekoei erantzuteko hezkuntzan gune berrietara egokitzeko eta, orobat, ikasteko eta irakasteko beste modu batzuk sortzeko.

Gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin nahi izan da, beste alternatiba eta jarduketa batzuk proposatu eta, halaber, hurrengo urteetan ikastetxean beharrezkoak izanen diren jarduketetarako plan bat idazteko dokumentu erabilgarri bat eskura izateko.



Aldi berean, ikastetxeko irakasleek hezkuntza proiektuaren gaineko hausnarketaren aldeko apustua egina zuten eta harekin engaiatuta zeuden, ikastetxeak abian jarria duen eraldaketara orokorrerako HEZIGARRI proiektuaren bitartez.



tez. Proiektu hori sortu da ikasle guztien aniztasuna kontuan hartuko duen erantzun inklusibo bat eman behar duelako hezkuntzak.

Guraso elkarteak elkarlanean aritu da prozesu honetan eta hezkuntza komunitate osoak parte hartuko duen hausnarketarako proiektu bat abiatu da, zeinetan, elkarriketen, lantegien, solasaldien, talde-dinamiken, ekintza piztailleen eta abarren bitartez, jakin dezagun zein den komunitate osoaren iritzia, bai gaur egungo egoeraren diagnostikoa eginez, bai udalaren inbertsio-planeko askotariko jarduketaren eremuen planteamendua, bai ikastetxearen hausnarketa pedagogikoa.

Prozesuaren ondorioak partekatu ziren eta komunitateko kideek aukera izan zuten beren nahiak eta beharrak talde teknikoari eta eragile taldeari adierazteko.

GAUZATZE ALDIA

2020ko urtariletik 2021eko azarora

HELBURUAK

- ✓ Hezkuntza komunitatean txinparta piztea.
- ✓ Ilusioa eragitea eraldatzeko, eta elkarretaratzeko guneak sortzea.
- ✓ Ikastetxeko gunean eta ingurunean zer nahi den zehaztea.
- ✓ Elkarriketa ireki bat estreinakoz bultzatzea hezkuntzaren hezkuntza proiektuaren inguruan eta mailaz maila berezita.

- ✓ Hezkuntza komunitate osoaren parte-hartze handia: irakasleak, gurasoak eta ikasleak.
- ✓ Ilusioa, gure hezkuntza errealitateari egokitutako ikastetxe berri bat izateko.

ABIAPUNTUKO IRIZPIDEAK

Abiapuntua Larraintzarko ikastetxea da. Ikasleen behar berrietara egokitu behar duen gune bat, hezkuntza-errealitate berrira egokitu behar duen ikastetxea aldatu nahi duena. Halaber, ikastetxea eraldatzen parte hartu nahi duen hezkuntza komunitatea dugu. Horrek guztiak proiektua bultzatzen laguntzen digu.

INDARGUNFAK

- ✓ Helburu bera duten zernahi faktore: ikas-tetxea berritzea fisikoki eta pedagogikoki. Alegia:
 - ▶ Ultzamako Udalak Larraintzarko ikas-txea hartzen duen eraikinaren egoeraren gaineko diagnostikoa egin nahi du.
 - ▶ Ikastetxeko irakasleek proiektu pedagogo batean murgildurik daude Heziga-rriren bidez.
 - ▶ Aldaketaren beharra sumatzen duten fa-miliak.
- ✓ Hezkuntza komunitate osoan izandako ha-rerra eta ilusio ona proiektuaren planteamenduaren aurrean.
- ✓ Ikasteko jarrera ona profesionalek lagundu-ta eqindako herritarren parte-hartze proze-



suetan. Emaiza partaidetzara bideratutako ekintzen eta helburuen plana izan zen.

- ✓ Erakundeen eta proiektuan tartekatutako gainerako eragileen arteko harreman ona.
- ✓ Proiektua beste ikastetxe batzuetan egiteko aukera.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Hasteko, 'begien bistakoa' ez den helbururik gabeko proiektu bat ulertzeko zailtasuna, epe laburretik harago ikusteko zailtasuna, hausnarketak noraino eraman gaitzakeen ez jakitea.
- ✓ Parte-hartze kontuetan dugun kultura eskasa. Kostatu da zenbait familia proiektura ekartzea, informatuak izatetik harago.
- ✓ Zehazki, zailtasunak daude gizonezkoak parte hartzean oinarritutako kulturen murgiltzeko, batez ere hezkuntzan.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Erakundeen inplikazioa: Ultzamako Udala eta Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzarako Atala (dirulaguntza eman du).
- ✓ Ikastetxeko irakasleen, zuzendaritza taldeko kideen eta irakasle ez diren langileen prestasuna.
- ✓ Familien prestasuna.
- ✓ Profesionalen kanpoko laguntza herritarren parte-hartzean.
- ✓ Profesionalen kanpoko laguntza arkitektura eta hezkuntza arloetan.

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

Egiaztatu badela beste gobernantza-mota baterako aukera.

- ✓ Parte hartzeko guneak eskaintzea garrantzitsua da.
- ✓ Partaidetzan oinarrituta lan egitea, elkarre-tako batzordeek egindako lana baliozkotu eta berresteko.
- ✓ Partaidetza elementu eraldatzailea da. Komunitate gisa elkarrekin egindako bidea egin izanak elkarguneak sortu ditu, elkarrekin ikasi dugu egin dugun bidean...
- ✓ Hezkuntza komunitateko eragile guztien

aberaste pertsonal eta profesionala ekarri du.

- ✓ Proiektua dokumentatzea garrantzitsua da, informazioa hedatzeko eta, garrantasunez, egindakoaren gaineko informazioa komunitateko kide guztien eskura egon dadin.
- ✓ "Kode irekian" lan egiteak balio handia du, ikasitakoa beste hezkuntza komunitate batzuekin partekatzeko eta beste komunitate batzuen esperientzietatik ikasteko.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

- ✓ Hausnarketa eta ekintzarako 'mikroproiektuak' sortzen joanen dira, gorago aipatutakoak bezalakoak, betiere hasierako proiektua abiapuntu harturik.
- ✓ Eragile taldeak lanean segitzen du, eta sarra eta ideia berrietara irekita dago.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

- ✓ Datozen urteetarako helburuak dira hezkuntza komunitateko eragileen artean sortutako elkarguneak sendotzea. Epe laburrean, udalari laguntza eman zaio JANTOKIA berritzeko obren proiektua idazteko eta betearazteko lanetan, hezkuntza gunea fisikoki eraldatzeko finantzaketaren bila segitzen da, LIBURUTEGIaren gunearen eta kontzeptuaren gaineko hausnarketa lantzen ari da, eta jolastokiaren ondoko gela bat LASAITOKI bihurtzeko lanak egiten ari gara, AUZOLANean.
- ✓ Komunitate parte-hartzailea sortzea eta sendotzea, denen artean, parte-hartzean oinarritutako eta hezkuntza-ikusmolde berriak dituen ikastetxearen proiektu honi forma emateko, hori guztia askotariko erronka sozialei, teknologikoei eta ingurumenekoei eta ikasteko eta irakasteko zernahi moduri erantzuteko.
- ✓ Aldaketaren ageriko emaitzak ikustea.
- ✓ Inspirazio eta kontsultarako balio duen memoria dosierra argitaratzea.

LABURPEN BIDEOA

- https://www.youtube.com/watch?v=_HL-GpgVatHI

HERRI ATSEGINAK ADINEKOEKIN: CORELLA ATSEGINA, LERIN ATSEGINA, BURGI ATSEGINA

HARREMANETARAKO DATUAK

Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia

📄 González Tablas 9. 3. solairua

✉️ dgot@navarra.es


☎️ 848 42 76 17

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatzeko estrategiaren esparruan (2017-2022), Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren bitartez, bere gain hartzen ditu 2. ardatzeko («Ingurune lagunkoiak eta erregio-garapenerako aukerak») ekintzak.

Zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatzeko 2018-2019ko estrategiaren ekintza planak hiri, herri eta auzo lagunkoien eremuan ekintza zehatzak garatzea aurreikusten du, eta helburu nagusia da zahartze ikuspegia eta kolektibo horren beharrak lurralde eta hirigintza plangintzako eredu eta tresnetan txertatzea.

Lurralde eta Paisaia Zerbitzuak «Hiri Diagnostiko Parte-hartzailea» izeneko esperientzia pilotu bat aktibatu zuen, adinekoek beren hiri testuinguruan dituzten eguneroko beharrak antzeman ahal izateko. Proiektua Corellan hasi zen 2018an, eta, 2019an, Lerinen eta Burgin gauzatu zen.



GAUZATZE ALDIA

2018-2019

HELBURUAK

- ✓ Diagnostiko metodologia parte-hartzaile bat ezartzea, hainbat lurralde testuingurutara egokitua eta hiru udalerrri mota barne hartzen dituen, biztanle kopurua eta kokapen geografikoa kontuan hartuta.



- ✓ Hirugarren eta laugarren adinekoek beren herrietako espazio publikoen diseinuari, irisgarritasunari, mugikortasunari eta lagunkoitasunari dagokienez dituzten beharrak lantzea.
- ✓ Esku hartzeko eta kudeatzeko proposamen zehatzak identifikatzea, gizartea eraldatzeko tresna gisa eta udal eremuan erabakiak hartzeko laguntza tresna gisa.
- ✓ Parte hartzeko, elkartzeko eta ideiak eta pertzepzioak trukatzeko mekanismoak erraztea, eta konponbideak eta proposamenak eraikitzeko bide ematea.
- ✓ Adinekoek hiriguneei buruz duten iritzia balioestea eta prozesu horiek erraztuko dituzten parte hartzeko mekanismo berriak probatzea.
- ✓ Adinekoentzako ingurune osasungarriak, lagunkoiak, inklusiboak, seguruak eta jasagarriak sortzea; hurbileko kanpo espazioen diseinua izan behar dute, eta ariketa eta jolas jarduerak egiteko eta sozializatzeko aukera eman.

INDARGUNEAK

- ✓ Beste udalerrri batzuetan erreproduzi daitekeen metodologia.
- ✓ Parte-hartzearen pedagogia eta kultura adineko pertsonentzat eta herritar guztientzat.
- ✓ Gure adinekoen jakinduria ikasi eta transmititzea.
- ✓ Testuinguru jakin bateko biztanleen eguneroko esperientziaren balioa nabarmentzea.



- ✓ Hirigintza pertsonengana hurbiltzea eta adinekoen bizi kalitateari eragiten dioten beharrian partikularrei erantzutea: mugikortasuna, irisgarritasuna, segurtasuna, eta abar.
- ✓ Herritarren artean (adinekoen artean, bereziki) hartutako erabakiak sartzea, espazio publikoen erabilerari dagokionez.
- ✓ Belaunaldien arteko bilera eta hausnarketa guneak sortzea.
- ✓ Espazio publikoa hiri diseinu atseginarenean protagonistatzat hartzea.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Aldaketekiko erresistentziak; batez ere, mugikortasunari dagokionez.
- ✓ Gizonezko herritarrak parte-hartze prozesuetan sartzea.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Udalaren inplikazioa eta konpromisoa. Udal komunikaziorako tresnak eta azpiegiturak ematea.
- ✓ Proiektua zabaltzeko kanpaina egokia.
- ✓ Udalerriko/ibarreko funtsezko pertsonak kontuan hartzea.
- ✓ Protagonista bakoitzaren egitekoa eta erantzukizuna argi eta garbi definitzea.
- ✓ Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarentzat esperientzia pozgarria izan da, eta bereziki azpimarratu nahi dugu cAnnica lantaldeak egindako lana. Izan ere, hirigintza hurbilduta –pertsonak parte



aktibo senti daitezzen eta beren herrien diseinuan esku hartzeko gai izan daitezzen-, parte-hartze handia lortu dugu.

IKASITAKO LEZIOAK ETA INSPIRAZIO IDEIAK

- ✓ Hausnarketa egitea, erronkak antzematea eta kasu zehatzak praktikara eramatea (Burgi eta Lerin).
- ✓ Adinekoei entzutea eta herrietako espazio publikoen ahulguneak hobetzea onuragarria da herritar guztientzat.
- ✓ «Egunerokotasunari buruzko begirada berri bat» ikastea.
- ✓ Proiektu honetan parte hartzeak sortzen dituen ikaskuntza eta esperientzia beste prozesu batzuetarako iturri izan daitezke.
- ✓ Lankidetza publiko-pribatua, eta administrazio autonomikoaren eta toki administrazioaren artekoa.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO

- ✓ Era horretako diagnostikoak sartu dira Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak 2020an diruz lagunduko dituen hirigintzaren arloko jarduketa berritzaileen artean.
- ✓ Diagnostikoetan zehaztutako jarduketa zehatzetarako inbertsioa sartzeari dirulaguntzen hurrengo deialdietan.
- ✓ Herriak, hiriak eta auzoak atseginago egiteko antzemandako jarduketak gauzatzea eta horien jarraipena egitea.



- **Lerin.** Deialdira aurkeztu da, diagnostikoko ildoetako batean (mugikortasuna) aurrera egiten jarraitzeko.
- **Burgi.** Plaza atseginago egiteko esku hartzea: pertsonentzako espazio sinboliko bat berreskuratzea –ibilgailuek hartuta baitzuten– eta plaza atsedenerako eta erabilera publikorako hiri altzariz eta landarez hornitzea.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

Administrazio autonomikoa

- ✓ Laguntzen deialdiei eustea, tokiko erakundeek herriak eta auzoak eraldatzeko jarduketetan laguntzeko.
- ✓ Diagnostikoetan espazio publikoak hobetzeko identifikatutako jarduketak gauzatzea, lana eta parte-hartzea benetan baliagarriak izan dezaten.

Toki entitatea

- ✓ Udalaren konpromisoa: Udalaren erabaki guztiak hirugarren eta laugarren adinekoen ikuspegitik aztertzea.
- ✓ Diagnostiko prozesuan adostutako ekintza plana eta neurriak ezartzeko legimititatea. Plangintza epe ertainean.

ESPERIENTZIAREN BIDEO LABURPENA

<https://youtu.be/z6UPxwMPOfI>



BAKAIKURI BURUZKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA EGITEKO PARTE-HARTZE PROZESUA

HARREMANETARAKO DATUAK

Bakaikuko Udala

📍 Santio plaza 1. 31180 Bakaiku

✉ udala@bakaiku.eus

☎ 948 56 25 09 / 633 35 46 97

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Bakaikuko Udalak, udalerriaren etorkizunaz kezkatuta, prozesu hau abiarazi zuen; izan ere, gobernu taldeak hausnarketa estrategiko baten beharra ikusten zuen Bakaikuren beharrak, ahalmenak, alderdi indartsuak eta hobetu beharreko elementuak identifikatzeko eta, aldi berean, proiektua abian jartzerakoan bakaikuarak kontuan hartzeko.

Gobernu Irekiaren ereduak bizi kalitatea hobetzea du helburu, eta hiru ardatz nagusi ditu: parte-hartzea, gardentasuna eta lankidetzak. Herritar guztiek dute kudeaketa publikoan parte hartzeko eskubidea, eta Bakaikun egin den prozesuak aukera hori eman du.

Aurrez aurreko 3 tailer egin dira, eta saio bat erretiratuekin. Guztira 65 lagunek hartu dute parte (22 emakumek eta 43 gizonek). Herri osoari zuzendutako saioetan haurtzaindegi zerbitzua eskaini da. Gainera, 14 haurrek udalerrian zer izan nahiko luketen adierazi dute marrazkien bitartez.



Parte-hartze prozesu horretan 300 proposamen inguru bildu dira, eta 10 erronka nagusitan banatzen dira. Baina, aldi berean, askoz ere ekintza gehiago daude erronka bakoitzean:

Honako lehentasun hauek zehaztu dira:

- ✓ Eskola zaharrerako alternatibak bilatzea
- ✓ Etxebizitza beharrei erantzutea



- ✓ Auzolana sustatzea
- ✓ Kultura, kirola eta aisialdia indartzea
- ✓ Parte-hartzea bultzatzea
- ✓ Zerbitzuak
- ✓ Oztopo arkitektonikoak kentzea
- ✓ Lehen sektorerako alternatiba berriak
- ✓ Bisitariak erakartzeko estrategiak
- ✓ Harrera protokoloa

GAUZATZE ALDIA

2018ko martxotik urrira

HELBURUAK

Helburu orokorra:

- ✓ Bakaikuren etorkizuna irudikatzea, udal-erriaren errealitatea kontuan hartuta, eta prozesuan ezarritako helburuak lortzeko jarraitu beharreko bidea zehaztea.

Berariazko helburuak:

- ✓ Bakaikuko errealitatearen diagnostiko irekia egitea, parte-hartzaileen pertzepzio subjektiboak kontuan hartuta.
- ✓ Zoriontasun eta gogobetetasun faktore pertsonalak eta kolektiboak kontuan hartzea, Bakaikuren etorkizunaren ezaugarriak zehazteko.

- ✓ Etorkizuneko agertokiak mahai gainean jartzea eta zerrenda batean adieraztea agertoki bakoitzak zer mehatxu eta aukera eraginen dien bakaikuarren bizi kalitateari.
- ✓ Etorkizunerako estrategia eta ekintzen zirriborroa egitea.
- ✓ Proiektuak lehenestea.

INDARGUNEAK

- ✓ Herritarren parte-hartze handia.
- ✓ Herriaren etorkizunari buruzko kezka parte-katua.
- ✓ Ekarpinak egiteko gogoia, bakoitzak bere aukeren arabera.
- ✓ Iritzi aniztasuna, helburu komun batekin: herriaren ongia.
- ✓ Udaleko taldeak prozesura eta haren ondo-orioetara egokitze prest egotea.
- ✓ Genero ikuspegia oso presente egon da proiektu osoan. Gizonez bakarrik osatutako talde eragile bat izatetik emakumeak ere dauden jarraipen batzorde batera igaro gara. Prozesuan bertan landu du gaia.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Ohitura falta jende talde batzuetan (hirugarren adinekoak).



- ✓ Epe luzerako ikuspegi estrategikorik eza; epe laburrera begiratzeko joera.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Komunikazio kanpaina.
- ✓ Kanpoko laguntza, prozesua dinamizatzeko.
- ✓ Prozesu honen aliatu nagusia Sakanako Garapenerako Agentzia bera izan da; hain zuzen ere, prozesua abiaraztera animatu zuen Udala, eta martxan jarri diren tailerretan ere parte hartu dute.

IKASITAKO LEZIOAK ETA INSPIRAZIO IDEIAK

- ✓ Herriaren erronkei modu komunitarioan aurre egiteko benetako aukera.
- ✓ Udalaren lana herritarren ekarpenekin abeerastea.
- ✓ Politika publikoak aldatzeko ahalmena.
- ✓ Gobernantza eredu berrietarantz aurrera egitea.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO

Prozesu parte-hartzailea dinamizatzeko udal taldeak eta auzotarrek osatutako talde eragi-

leak aktibo jarraitzen du, prozesu horren ondorioei aurre egiteko. Taldeak bilerak egiten eta erabakiak hartzen jarraituko du hiru hilean behin edo egoerak hala eskatzen duenean.


Beste parte-hartze prozesu bat egin da plan estrategikoaren hiru lehentasun nagusietako baterako. Bakaikuk zer motatako auzolana behar duen erabakitzeko, herritarrei irekitako prozesu bat egin da. Ordenantzaren zirriborroa jendaurrean dago, ekarpenak egiteko, eta las-ter onartuko da ekimena abian jartzeko.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

- ✓ Adostutako ekimenak abian jartzea.
- ✓ Herritar guztien ekarpenak baloratzea.
- ✓ Prozesuak ezarritako helburuetara bideratutako udal politikak aldatzea.

ESPERIENTZIAREN BIDEO LABURPENA

<https://youtu.be/RUo1KQudKTY>



ETXARRI ARANAZKO PLAZA INGURUA HOBETZEKO PARTE-HARTZE PROZESUA (2017-2018)

HARREMANETARAKO DATUAK

Etxarri Aranazko Udala

📍 Kale Nagusia 10 | 31820 Etxarri Aranatz

✉️ alkatetza@etxarriaranatz.eus

☎️ 948 460 004

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Etxarri Aranazko kioskoa ez zen aproposa kultur jarduerak egiteko, txikiegia baitzen. Gainera, arazo teknikoak sortzen zituen. Horregatik, Kultura Batzordeak iritzi zion kiosko berria behar zutela.

Alabaina, herritarren parte-hartze prozesu bat abiatzea erabaki zuten, nolako kioskoa egin, non jarri eta abar erabakitzeko.


Horrela, Kultura Batzordeak parte-hartze prozesuari ekin zion, kioskoarekin lotutako arazoak konpontzeko. Hala ere, lehenengo batzarrean, herritarrek adierazi zuten kioskoa berritzea baino, Etxarri Aranazko erdiguneak mugikortasun plan orokor bat behar zuela.

GAUZATZE ALDIA

2017ko irailetik 2018ko azarora

EKIMENAREN ZENBAIT GAKO


Mugikortasunarekin lotutako zenbait aldaketa egin behar ziren (oinezkoei lehenetasuna eman eta ibilgailuak aparkatzeko guneak sortu). Era berean, irisgarritasuna hobetu beharra zegoen



desgaitasunen bat duten pertsonentzat, adinekoentzat eta haurrentzat.

Proiektuak bi fase izan zituen:

- ✓ Lehendabizi, mugikortasun plan orokor bat egin zen: disuasio aparkaleku bat eraiki zen, plaza eta Iturri Eder ingurua oinezkoendako gune bihurtu, plazako belardiaren zorua berdindu, parkea hesitu eta kaleko aparkalekuak berrantolatu.
- ✓ Ondoren, lanak plazan egin ziren, eta gune estali bat eraiki zen.



ABIAPUNTUKO IRIZPIDEAK

- ✓ Herritarrei ahalik eta informazio eta pres-takuntza onena ematea, erabaki zuzenak eta irmoak har ditzaten.
- ✓ Prozesuan hainbat mailatako eragileek par-te hartzea: udal ordezkariak, udal teknika-riak, adituek eta herritarrek.
- ✓ Batzarretan adin guztietako pertsonak ego-tea. Bileretan parte hartzen duten emaku-meen eta gizonen kopurua antzekoa izatea.

PROZESUARI BURUZKO ZENBAIT ZIFRA

Guztira 80 lagun inguruk parte hartu zuten lau batzarretan. Beste 77 herritarrek idatziz aurkez-tu zituzten beraien proposamenak. Horrez gain, 125 inkesta bildu ziren.

EGINDAKO LANAK

- ✓ Ibiltzea komeni dela kontzientziatzeko kanpaina (2017-2018)
- ✓ Aparkalekua sortzea (2017)
- ✓ Oinezkoendako gune bihurtzea eta zola-dura hobetzea (2018ko martxoan eta api-rilean)
- ✓ Gune estalia eraikitzea (2018ko urrian eta azaroan)
- ✓ Argiteria hobetzea eta LED argiak jartzea (2017-2019)



INDARGUNEAK

- ✓ Parte hartze handia. Profil eta adin desber-dinetako pertsonen arteko interakzioa.
- ✓ Erabakiak hartzerakoan hutsetik abiatzea, Udalak aldeaz aurretik ezer erabaki gabe, eta erabakiak talde dinamikaren bidez eta saio irekietan hartzea, adostasunean oina-rrituta.
- ✓ Talde mistoan eta batzarretan ahalegi-na egin zen emakumeen eta gizonen pre-sentzia orekatua bermatzeko. Batzarretan haurtzaindegi zerbitzua eskaini zen, haur txikiak gurasoek ere parte hartzeko aukera izan zezaten.
- ✓ Batzarretako aktak bidali zitzaizkien horie-tan parte hartu zuten pertsonari.
- ✓ Halaber, hainbat informazio aldizkari bana-tu ziren herriko jendearen artean (bai online bai etxeko postontzietan sartuta).

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

Hasiera batean Kultura Batzordearen proiektu puntual bat zen (espazio eszeniko bat birmol-datzea), baina, parte-hartze prozesuaren on-doren, helburua zabaltzea, eta mugikortasuneko eta irisgarritasuneko hirigintza plan orokor ba-tera eboluzionatu zuen.

Horrek nabarmen handitu zuen proiektuaren di-mentsioa: obra zibil gehiago egitea (aparkale-kua, zoladura leuntzea, oztopo arkitektonikoak kentzea...), espazio publikoen erabilera aldat-



zea (oinezkoendako gune bihurtzea, kaleen norabideak aldatzea...) eta kiosko estali bat eraikitzea

Azkenean, proiektuak bi udal zerbitzuri eragin zien: Hirigintza Zerbitzuari eta Kultura Zerbitzuari. Ondorioz, bi urteko plan bat egin behar izan zen aurrekontuetan, eta finantzaketa bide berriak bilatu.

Herritarrek parte hartzeko epeak, gauzatzeko epeak eta aurrekontua handitu egin ziren. Eta hori guztia erronka oso handia izan zen udal kudeatzaileentzat.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Udal ordezkarien, langileen eta Batzorde Teknikoko kideen inplikazioa.
- ✓ Ilusio eta ikusmin handia sortu zuen gai bat lantzen ari ziren.

IKASITAKO LEZIOAK ETA INSPIRAZIO IDEIAK

Erabakiak ongi hartzeko, ezinbestekoa da informazio eta ikuspegi desberdin asko partekatzea eta kontrastatzea (erabiltzaileenak, kudeatzaileenak, teknikarienak, herritarrenak...). Informa-

ziorik gabe ezin da ongi erabaki. Gako nagusietako bat izan zen herritarrek batzar bakoitzean hartzen ziren erabakien berri izan zutela.

Oso interesgarria da parte hartzeko metodologiarabakiak adostasunez hartzean oinarritzea. Horretarako, enpatia landu ez ezik, entzuten eta taldean lan egiten ere jakin behar da; hala, ideia eta iritzi desberdinak uztartu ahal izateko.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO

Etorkizunean, partaidetza prozesuaren barruan egin ziren jarduketak baloratzen ahalko dira, eta erronka eta hobekuntza berriak planteatu, ekintza eremu horretan.

EKIMENA DENBORAN ZEHAZ MANTENTZEKO GAKOAK

- ✓ Egindako hobekuntzen diagnostiko ona egitea.
- ✓ Etorkizuneko esku-hartzeetarako partaidetza metodologia egokia ezartzea.

ESPERIENTZIAREN BIDEO LABURPENA

<https://youtu.be/2AZbLlc6FdQ>

LA CUBIERTA SE COLOCARÁ EN LA PARTE TRASERA DEL QUIOSCO, EL CUAL QUEDARÁ INTEGRADO

Se trata de un acuerdo firme adoptado por la asamblea del 6 de junio · Se prevé comenzar la obra después de las ferias y acabarla para finales de año · Será subvencionada en un 100 %



IMPRESINDIBLE PARA LOS DÍAS DE LLUVIA

El acuerdo final es el resultado de un proceso de participación que ha durado un año: una encuesta, 4 asambleas abiertas y el asesoramiento del Equipo Técnico. Durante el mismo,

se vio que es imprescindible tener una cubierta para cuando llueve, ya que durante el año muchas actividades y actos se suspenden por ese motivo, y ello supone una gran pérdida de tiempo y dinero, además de tener que estar hasta el último momento a expensas del tiempo. Además, la cubierta del quiosco, por su diseño, no protege y cuando llueve se mojan los instrumentos.

GRACIAS A TODOS /AS

El Ayuntamiento quiere dar las gracias a los/as txarriarras que han participado en las asambleas y en el proceso de reflexión: 125 personas cumplieron la encuesta; 83 vecinos/as han participado en total en las 4 asambleas y se han recibido 70 aportaciones de cara al acuerdo definitivo. Merecen mención especial las vecinas y los vecinos que han participado en el equipo técnico, el trabajo realizado por los/as trabajadores municipales, así como las aportaciones realizadas por músicos locales. Ha sido un largo proceso, pero muy enriquecedor, debido a que hemos sido capaces de llegar a un amplio consenso conciliando los distintos puntos de vista.

ESTALOPEA KIOSKOAREN ATZEKO ALDEAN EZARRIKO DA, HORRELA INTEGRATUTA GELDITUKO DA

Ekainaren 6ko batzarrak hartutako behin betiko erabakia izan da · Aurreikusten da obra Feriak pasatuta hastea, eta urte amaierarako amaitzea · %100 diruz lagunduta



EURIA EGITEN DUENERAKO EZINBESTEKOA

Behin betiko erabakia hartzeko urtebeteko parte-hartze prozesua egin da: inkesta bat, 4 batzar ireki eta Talde Teknikoaren aholkularitza. Baloratu da euria egiten duenerako

behar-beharrakoa dugula estalope bat izatea, urtean zehar hainbat jarduerak eta ekitaldi bertan behera uzten direlako, eta horrek denbora eta diru galera handia dakarrelako, eta azken momentura arte eguraldiaren menpe egon beharra. Bestalde, gaur egungo kioskoaren tapakak, duen diemagailak, ez du balibeste eta euria egiten duenean kiosko barruko musika tresnak busti egiten dira.

ESKERRIK ASKO DENOI

Udalak eskerrak eman nahi dizkie batzarretan eta hausionarieta prozesuan parte hartu duten txarriarrak guztiei: inkesta 125 lagunek bete zuten, 4 batzarretan 83 lagunek parte hartu dute guztira, eta azken erabakirako idatziz 70 ekarpen egon dira. Eta aipamen berezita merezi du Talde Teknikoan parte hartu duten herritarrek eta udal langileek egindako lanak, eta herriko musikariek egindako ekarpenek ere bai. Ilbide luzea izan da, baina oso aberatsa, ikuspegi desberdinak uztartuz elkarrekin kontsentsu zabaletara iristeko gai izan garelako.

BIZIKIDETZA PLANA. GIZARTEAREN ETA BIZILEKUAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOA ETA ESKU HARTZEA, MURCHANTEN

HARREMANETARAKO DATUAK

Espainiako Gurutze Gorria

Leire kalea 6. 31002 Iruña (Nafarroa)

navarra@cruzroja.es

948 20 65 70

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Murchanteko herritarrak kezkatuta daude zer-bitzu publikoek gainezka egin dutelako, herritar magrebtarren kopurua hazi delako eta horiek babes ofizialeko etxebizitzetan pilatzen direlako. Horrek guztiak tirabirak eragiten ditu herritarren artean, eta bizikidetza arazoak sor ditzake etorkizunean.


Nafarroako Gurutze Gorriak Murchanteko Udaren esku-hartze eskaria jaso ondoren, lantalde teknikoak gizartearen eta bizilekuaren arloko diagnostikoa eta kulturarteko ikuspegian eta metodologia parte-hartzailean oinarritutako ekintza programa integrala prestatzeari ekin zion.

GAUZATZE ALDIA

2019ko uztailetik abendura

HELBURUAK

Bizikidetza hobetzea, kolektibo ahulen gizarteratzea sustatzea eta bizileku bereizketako eta/edo bazterketako prozesuak geldiaraztea/arintzea izan da helburua. Horretarako, helburu nagusi bat landu da fase bakoitzean:



- ✓ **Lehenengo fasea:** oraingo eta etorkizuneko kulturarteko bizikidetza arazoen arrazoiak antzeman eta aztertzea, eta ekintza plan oso bat lantzea, egoera ahulean dauden kolektiboen gizarteratzea bultzatzeko eta bizitegi bereizkeria eta/edo bazterketa prozesuak geldiarazi edo arintzeko.
- ✓ **Bigarren fasea:** komunitate osoak bizikidetza hobetzeko, kolektibo ahulen gizarteratzea indartzeko eta gizarte bereizketako eta/edo bazterketako prozesuak geldiarazteko/arintzeko zenbait jarduketatan parte har dezan sustatzea



INDARGUNEAK

- ✓ Nafarroako Gobernuak horrelako proiektuak aurrera eramateko ematen duen laguntza.
- ✓ Gurutze Gorria, giza baliabideak eta baliabide teknikoak ematen dituen, ezagutza eta esperientzia handia duen eta tokiko sare sendoa duen boluntarioen erakunde gisa.
- ✓ Toki administrazioaren, erakunde publikoen eta herritarren partaidetzako beste erakunde batzuen arteko koordinazioa eta sareko lana, bai eta aktiboki parte hartu zuten boluntarioena ere.
- ✓ Proiektuak bi fase izatea: diagnostikoa eta ekintza plana. Horri esker, alde zureko azterketa egin daiteke, errealitatea ezagutzeko, eta, gero, plana diseinatu eta esku hartu, betiere ikuspegi objektiboan eta ebidentzietan oinarrituta.
- ✓ Partaidetzaren eragileak jarraipen batzordea (erakunde publikoetako 9 ordezkari osatua) eta talde eragilea (komunitateko 9 herritarrek osatua; horietako 6 elkarteetako ordezkari dira) izan dira.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Lehen eta bigarren faseen artean 10 hilabete igaro ziren, eta horrek parte hartzaileen motibazioa galtzea eragin zuen. Ondorioz, ahalgin bikoitza egin behar izan zen motibazioa berreskuratzeko. Bestalde, fase bakoitzaren iraupena luzeagoa izan liteke, errezelo gehieneko pertsonen ere parte har dezaten.
- ✓ Errezeloak estereotipoetan eta aurreiritzietan sinesteagatik sortzen dira, eta hainbat

eremutan eragiten dute: kultura, familia, hezkuntza, etxebizitzan, aisialdian eta denbora librean.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Udalak eta gizarte eta hezkuntza erakundeek proiektua gauzatzen lagundu dute; batez ere, funtsezko parte-hartzaileen interesa eta motibazioa mantenduz lehenengo faseetik bigarrenera bitartean.
- ✓ Parte-hartzaile guztiek entzuteko eta sinismen faltsuak zalantzan jartzeko izan duten prestasuna, bai eta beren bizitza istorioak kontatzeko eta partekatze prestasuna ere.
- ✓ Atzeritarrek gaztelania ikasteko erakutsi duten gogoia.
- ✓ Elkarteek programatutako jardura guztietan izan duten interesa eta parte-hartzea, baita elkarte horiek proposatutako jardueren garapena ere.
- ✓ Arabieraz hitz egiten duten eta elkar ulertzeko zubi lanak egin dituzten boluntarioak.
- ✓ Bizikidetzaren hobetze aldera, batzuen eta besteen artean sortutako konfiantza.

IKASITAKO LEZIOAK ETA INSPIRAZIO IDEIAK

- ✓ Ikerketa-Ekintza-Partaidetza metodologia (IAP) herritarrek diagnostikoan parte hartzea ahalbidetzen duen metodologia da; beraz, herritarrek beraiek bideratzen dute ikerketa.



- ✓ Garrantzitsua da foro eta espazio komunak sortzea, pertsona guztiei eragiten dieten interes orokorreko gaiak lantzeko jarduketak sustatzeko: osasuna, etxebizitza, hezkuntza eta kultura, besteak beste.
- ✓ Bizitza istorioak ezagutzea eta partekatzea, istorio horietako alderdi emozionalen bitartez pertsonen arteko loturak sortzeko eta elementu komunak aurkitzeko. Horrela, behar bezala esku hartzeko oinarriak finkatzen ahalko dira.
- ✓ Pertsonen arteko loturak sortzeak udalerriko giroa hobetu, pertzepzioak aldatu, jokabideak egokitu eta bizikidetza multikulturala errazten du.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO

- ✓ Proiektua Gurutze Gorriak zuzendu zuen, baina erakunde, elkarte eta parte-hartzaile bakoitzak hartu behar zuen lekukoa. Horretarako, honako hau zen modurik egokiena: proiektua gauzatzean egindakoen antzeko jarduerak beren proiektuetan sartzea.
- ✓ Murchanteko bizikidetza hobetzearen aldeko jardunbide egokiak egiteko sentsibilizazio jarduerak proposatu ziren (jolas jarduerak, topaketak, azokak...).
- ✓ Iritzi zioten komeni zela interes komunak zituzten pertsona eta familien arteko to-

paketa informalak bultzatzea, kulturartekotasunaren ikuspegitik.

- ✓ Gurutze Gorriak Udalari etengabe laguntzea, proiektuan proposatutako ekintza guztiak gauzatzen jarrai dezan.

EKIMENA DENBORAN ZEHAZ MANTENTZEKO GAKOAK

- ✓ Funtsezkotzat jo zen egutegian data zehatz bat ezartzea, proiektuan zehar landutako hainbat jarduera bateratzeko eta, hala, aurreroko hilabeteetan ezarri eta planifikatutako beste jarduera batzuk sortzeko. Horrela, jarraipena eman eta funtsezko erakundeak, elkarteak eta eragileak inplikatu ez ezik, komunitateak ere parte hartuko zuen.
- ✓ Frogatu zen biztanleriaren hainbat sektoretan landu daitekeela bizikidetza plan bat-haurren, gazteen eta adinekoen artean, euren jatorria edozein dela ere-, pentsamenduak aldatuz, imaginario kolektiboa egokituz eta, beraz, jokabideak eraldatuz, bizikidetza hobea lortze aldera.

ESPERIENTZIAREN BIDEO LABURPENA

<https://youtu.be/6dfoKygg2IE>



NIRE AUZOA, NIRE JOLASTOKIA MI BARRIO, MI PATIO

HARREMANETARAKO DATUAK

Hezitzaile Eskola ikastetxe integratua

📍 Kale nagusia 65, 31001 Iruña

✉ escuela.educadores@educacion.navarra.es


☎ 848 43 09 70

PROIEKTUAREN TESTUINGURUA

Hezitzaile Eskola ikastetxe integratuko jolastokian (Ezpeleta Jauregia) jolas libreko espazio bat elkarlanean sortzean datza. Horretarako, elkarlaneko eraldaketa prozesu bat baliatuko da, eta Iruñeko Alde Zaharrean dauden eragileek koordinatuko dute: hiritarrek, teknikariek eta administrazioek. Espazioa bereziki 0-6 urteko hezkuntza etaparako dago diseinaturik.

Oso auzo berezia da Iruñeko Alde Zaharra, eta 11.000 bat pertsona bizi dira bertan gaur egun. Alde Zaharreko bizilagunak etengabe daukete harremanetan, batzuetan errazak ez diren harremanetan, guneari ematen zaizkion beste erabilera batzuekin; izan ere, hirigune historiko den aldetik, ostalaritza eta turismo baliabide ugari ditu. Azken 10 urteotan, Alde Zaharreko biztanleriak behera egin du, eta 5 urtetik beherako haurren artean islatu da beherakada hori hein handi batean; hiri osoan % 6,53 egin du behera haurren kopuruak, Alde Zaharrean, baina, % 38,21.

Zaila da hain haur txikiak hezteko beraientzat egokia ez den ingurune batean. Horregatik, berriro jolas librerako lekuak falta direla atzeman dugu, batik bat, adin tarte horretako haurrendako lekuak.



GAUZATZE ALDIA

2018ko urritik 2019ko abendura

HELBURUAK

- ✓ Hezitzaile Eskola ikastetxe integratuko jolastokia jolas librea faboratzeko toki gisa eraldatzea, Haur Hezkuntzako eta Animazio Soziokulturaleko eta Turistikoko goi mailako lanbide heziketako zikloetako ikasleen prestakuntza dinamikekin loturik.
- ✓ Ezpeleta jauregiko jolastokia eraldatzeko partaidetza prozesuaren garapenean esku



hartu duten komunitateko hainbat eragile eta instituzio elkarlanean aritzeko guneak sortzea.

- ✓ Jolasari eta haren ahalmenari buruz kolektiboki hausnartzea, auzoko biztanleen artean inklusio prozesuak faboratzen dituen hezkuntza garapenerako elementu gisa duen ahalmenari buruz, alegia.

PROZESUAREN EMAITZAK

Partaidetza erreminten bitartez parte hartu zuten pertsonen, haurren, haien familien eta irakasleen 465 proposamen jaso ziren guztira.

- ▶ Hezitzaile Eskolako 177 ikasle
- ▶ Frantzisko Deuna ikastetxeko Haur Hezkuntzako 101 ikasle
- ▶ 72 esperientzia mahai
- ▶ Haur Hezkuntzako irakasleentzako 64 tailer
- ▶ Gurasoentzako 51 tailer

Jasoriko proposamen guztien artean, 255 hautatu ziren, proiektuaren hasieran ezarritako irizpide tekniko, ekonomiko eta teorikoak –jolas askea askatasuna, plazera eta autonomia faboratzen dituen eta naturarekin harremanetan egotea errazten duen elementu aktibo, dibertigarri eta irudimenekotzat jotzearen ingurukoak– betetzen zituztenak.

Proposamen horiekin guztiekin, eztabaidatzeko lantegiak egiten genituen; horietan, 29 hautatu ziren azken proposamen gisa, eta horien artean beste hautaketa bat egin zen: azkenean 15 proposamen aukeratu ziren; 15 proposamen horiek eman diote bide gure jolastokiaren behin betiko diseinuari, jolas askerako toki gisa.

INDARGUNEAK

- ✓ Prozesua askoz aberatsagoa izan da, komunitate osoak parte hartzeko aukera izan baitu.
- ✓ Inplikaturako pertsonen eta eragileek motibazio oso handia izan dute.
- ✓ Sintonia handia egon da inplikaturako erakunde guztien artean (Hezitzaile Eskola ikastetxe integratua, Frantzisko Deuna ikastetxe publikoa, Hezkuntza Departamentua, Iruñeko Udala, Frantzisko Deuna ikastetxeko IGE, Nafarroako Eskola Kontseilua), bai eta beste pertsona eta erakunde laguntzaile batzuen artean ere (Aldezar, Kumaldi).

- ✓ Gure ikasleentzat kalitate handiko ikas-kuntza profesionala izan da, testuinguru benetakoa delako eta hurrekin, familiekin eta erakundeekin kontaktua izan dutelako.
- ✓ Genero ikuspegitik landu da.
- ✓ Hurrek ere parte hartu dute, eta kontuan hartu ditugu euren ekarpenak.
- ✓ Prozesuaren mugak (pedagogikoak, teknikoak, arkitektonikoak, ekonomikoak...) ongi zehaztuta izateak prozesua parte-hartzailerak eta lotesleak izatea ahalbidetu du.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Lan handia izan da inplikaturako irakasleentzat.
- ✓ Ikastetxean egiten diren beste proiektu batzuekin alderatuta, ikasleek erabakitze-ko autonomia gutxiago izan dute, erabakiak koordinatu behar izan baitituzte, bai parte hartzen zuten hiru gela artean bai inplikaturako eragile eta pertsona guztiekin.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Inplikaturako erakunde guztiak eskuragarri egon dira, prozesuak erraztu dituzte eta proiektuan lagundu dute.
- ✓ Motibazio handia.
- ✓ Jakitea prozesua egokia bazen Nafarroako Gobernuak Herri Lan Zerbitzuaren finantzaketa lor genezakeela.
- ✓ Proiektuen bi deialditan parte hartzea (eskatzen duen exigentzia, finantzaketa eta zabalakundea kontuan hartuta):
 - ▶ Iruñeko Udaleko Ikaskuntza-Zerbitzu Solidarioa (deialdiko lehen saria)
 - ▶ Hezkuntza Departamentuko berri-kuntzako proiektuak
- ✓ Hedabideetan eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren «Berrikuntza proiektuak (2018-2019)» jardunaldietan zabalitzea.

IKASITAKO LEZIOAK ETA INSPIRAZIO IDEIAK

- ✓ Eskolako ikasleek prestakuntza jaso ahal izan dute, beren lanbide gaitasunak benetako zerbitzu batean sistematikoki aplikatuz.
- ✓ Jolastokia eraldaketa fisikoko prozesuan –jolas askea sortzeko toki bihurtzeko proze-

suan- dago bete-betean, eta erabiltzen hasi bezain laster atzeman genuen nola ari diren zabaltzen haurrendako jolas aukerak. Etxola eskalagarri bat, tipi bat, hareagune bat eta soinu horma bat paratu ditugu (jolaslasteraren azken diseinuan bildutako proposamenak), eta instalazio horien ondorioz, jada hasi gara atzematen haurrak jolas eta lorpen berriak –haurren garapena faboratzen dutenak– ari direla gauzatzen.

- ✓ Jolasari eta haren ahalmenari buruz kolektiboki hausnartu da, auzoko biztanleen artean inklusio prozesuak faboratzen dituen hezkuntza garapenerako elementu gisa duen ahalmenari buruz, alegia.
- ✓ Parte hartzeko bideak ematearen eta haurren ekarpenak baloratzearen garrantzia.
- ✓ Horrelako prozesuak komunikatu ahal izatea, beste toki batean erreproduzitu, eta haien izaera biderkatzailea eta eraldatzailea errazteko.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO

Etorkizun hurbileko helburua da San Frantzisko ikastetxe publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek jolaslaster berriz erabiltzeko aukera izatea; izan ere, proiektuaren erabilera hori eten egin da 2020-2021 ikasturtean, COVID-19aren ondorioz.

Prozesua berriro aktibatu behar da. Horretarako, talde eragile bat eratu behar da, eta hainbat erakunde publiko eta komunitariotako pertsonak inplikatu (Hezitzaile Eskola, IGE, Aldezar, Gurasoak eta beste eragile batzuk), jolaslastera eskola ordutegietatik kanpo erabiltzeko kudeaketak elkarlanean egin ahal izateko.



Asmoa da erabilera partekatu bat ezartzea, modu arduratsuan arautua dagoena eta komunitatearen eta administrazioaren inplikazioa duena. Auzoan izan dira espazio publikoa elkarlanean kudeatzeko esperientziak, hala nola Piparrika hiri baratzearen eta Plazara espazio soziokultural eta komunitarioaren proiektuetan.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

Gakoa da harreman estua izaten jarraitzea gaur egun hezkuntza erabilera partekatzen duten erakunde publikoen artean; hau da, Hezitzaile Eskolaren eta San Frantzisko ikastetxe publikoaren artean.

Horrez gain, kontuan hartu behar da komunitateak jolaslastera eskola ordutegietatik kanpo ireki ahal izateko elkarlanean aritzeko duen inplikazioa. Hiru elementutan oinarrituta egon behar du:

- ✓ Erabiltzeko ondasun publiko bat egotea; jolaslastera, adibidez.
- ✓ Komunitate aktibo bat, espazioa dinamizatuko duen herritarren talde eragile bat eratzeke.
- ✓ Erakunde publikoekin partekatutako erabilera arauak prestatzea, jolaslasteraren funtzionamendua arautzeko.

ESPERIENTZIAREN BIDEO LABURPENA

<https://youtu.be/720mKSQJgS8>



NAFARROAKO HONDAKINEN PLANEKO HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUA (2017-2027)

HARREMANETARAKO DATUAK

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia. Nafarroako Gobernua

📄 González Tablas kalea 9, 31005 Iruña

✉️ dgma@navarra.es


☎️ 848 42 78 79

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK


Gure departamentuak parte-hartze publikoa edo herritarrena planteatzen du bere plan eta proiektu guztietan txertatu beharreko lan modu gisa. Parte-hartze prozesua erabakiak hartzeko fasearen hasieran planteatu zen; orduan, dokumentuak oraindik zirriborro fasean zeuden, eta hainbat alternatiba hartzen ziren kontuan, administrazio izapideak egitearekin batera (Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Plana eta haren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa –IEE– argitaratu aurretik).

Hondakinen Plana egiteko proposatutako lan esparruaren barruan, parte-hartze prozesu bat planteatu zen. Prozesu horretan, hainbat espazio eta une bereizi ezarri ziren, ondoz ondokoak nahiz aldi berekoak, eta parte-hartze prozesu horretarako helburu hauek zehaztu ziren:

- ✓ Parte hartzeko eskubideaz eta eskubide hori gauzatzeko moduz informatzea.



- ✓ Hondakinen Planean parte har dezaketen alde interesdunak zein diren identifikatzea.
- ✓ Planaren proposamena alde interesdunei eta biztanleriari, oro har, aurkeztea eta kontsulta prozesua erraztea.
- ✓ Hondakinen Planaren informazio garrantzitsua eskura jartzea, eta honako hauek ezagutzera ematea:
 - ▶ Aurreko planaren emaitzak eta hondakinen egungo kudeaketa.



- ▶ Gaur egungo egoeraren diagnostikoa.
- ▶ Hondakinak biltzeko eta tratatzeko aukerak hautatzeko arrazoiak.
- ▶ Plan berriaren helburuak eta neurriak.
- ✓ Ekarpinak, proposamenak, iradokizunak eta/edo iruzkinak eta, hala badagokio, alegazioak aurkezteko aukera ematea.
- ✓ Adostasun txikiena lortu duten eduki eta proposamenak jendaurrean eztabaidatzeko gune bat sortzea.
- ✓ Alde interesdunen eta herritarren proposamenak bildu eta aztertzea, hala behar denean Planean sartu ahal izateko.
- ✓ Administrazio publikoen plangintza hobetzea, lan teknikoak eta parte hartzen duten erakundeen eta pertsonen proposamenak alderatuz.

Helburu horiek betetzeko, sei maila eta lau faseko parte-hartze prozesu bat diseinatu zen. Prozesu horretan, aurrez aurreko 29 saio/tailer ireki egin ziren (bai eta hasierako fasean egindako 9 saio/jardunaldi ere).

LORTUTAKO EMAITZAK

Prozesu osoan, 1.177 entitate, erakunde, enpresa eta pertsona gonbidatu dira bilera eta saioetan parte hartzeko.

Lurralde saio guztietan 556 parte-hartze pertsonal egin dira, eta 15 mankomunitate, 61 toki erakunde, 19 gizarte kolektibo eta erakunde eta 24 enpresa ordezkatu dira; 38 partikularrak izan dira. Saio horietan 231 galdetegi eta 1.917 ekarpen indibidual jaso dira. Horrez gain, 0. faseko

362 partaidetza eta 62 ekarpen zenbatu behar dira.

Fase guztietako ekarpenak kontuan hartuta, 185 erakundetako 2.365 ekarpen inguru kontabilizatu dira, bai banaka bai taldeka egindakoak: mankomunitateen 15 ekarpen, toki erakundeen 65, kolektibo eta instituzioen 38, enpresen 27 eta partikularren 40.

Jasotako 130 alegazioetatik, 62 (% 48) baietsi dira, dela erabat (41; % 32) dela partzialki (21; % 16); eta 39 ezetsi dira (% 30). Azkenik, 29 alegazio ezetsi dira (% 22), dagoeneko Planean testuan daudelako.

Saioak eta prozesua baloratu dira, eta, % 68k ongi (% 59,3) eta oso ongi (% 8,6) baloratu ditu.

INDARGUNEAK


- ✓ Prozesuaren diseinua jarraipen batzordea osatzen zuten hainbat eragilarekin alderatu zen, 2015ean egindako aurretiazko kontsulten aurreko fasean.
- ✓ Eztabaida oso presente egon zen; batez ere, saio tematikoetan.
- ✓ Itzulera fasean, informazioa, kontsulta eta eztabaida sortu ziren gune guztietako (lurraldekoak eta tematikoak) erabakiei buruzko informazioa itzuli zen.
- ✓ Prozesuan, adituek osatutako lantalde bat eratu zen.
- ✓ Aldez aurretik diseinatutako eta erakunde eta gizarte mailan egiaztatutako partaidetza plan bat egin zen.



- ✓ Lurralde eta sektore jarduerak bateratu ziren.
- ✓ Parte hartzeko prozesuari buruzko txosten on bat egin zen. Bertan, prozesu osoa xehe-xehe azaltzeaz gain, bilera mota desberdinetatik (lurraldekoak eta tematikoak) ateratako ondorio garrantzietsuenak nabarmendu ziren.
- ✓ Interesadutenerakundeak eta administrazioak identifikatu ziren, eta ahalegin handia egin zen haiei guztiei eta parte-hartzaileen erregistroan agertzen ziren pertsonen gonbidapenak egiteko. Erregistro horren aurretik, Nafarroako Ingurumen Kudeaketak biltzen zituen hondakinen arloko informazioa jasotzeko interesa zuten pertsonen datuak.
- ✓ Parte-hartze handia eta proposamenak eta alegazioak sortzea.
- ✓ Planaren eta prozesuaren ikuspegian, oso presente egon dira ekonomia, ingurumen eta gizarte jasangarritasunaren printzipioak.
- ✓ Planaren edukian generoa kontuan hartzeari dagokionez, Berdintasunerako Institutuaren txostena aldekoa izan zen.
- ✓ Ahalegin handia egin zen prentsa oharren, sare sozialen, webguneen eta abarren bidez informatzeko eta komunikatzeko.
- ✓ Parte-hartze prozesua egituratu den espazio bakoitzean ere egin ziren bai itzulera saioak bai amaierako itzulera saioa.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

Zabalkunde handia egin bazen ere, zailtasunak aurkitu ziren lurralde mailako bilera batzuetan parte-hartze egokia lortzeko.



Bestalde, formatu txikiagoetan berregituratu behar izan ziren partaidetza talde batzuk, parte-hartzaileek beren iritzia azaltzeko jarrera irekiagoa izan zezaten.

Azkenik, zenbait zailtasun aurkitu ziren dokumentuen kudeaketa eta eskura zeuden baliabideak uztartzeko.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

Elkarlana ona izan zen departamentuaren, esku hartu zuten enpresa publikoen eta kontratatutako laguntza teknikoaren artean.

IKASITAKO IKASGAI ETA INSPIRAZIO IDEIA NAGUSIAK

Prozesua departamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren beste plan batzuetara transferi daiteke.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO

Plana aplikatzeko eta berrikusteko fasean parte hartzen jarraitzea aurreikusi zen.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

Planaren jarraipena egiteko batzorde bat eratu zen, plana ebaluatzeko eta, haren garapena eta sortzen ziren arau berrikuntzak kontuan hartuta, eguneratzea proposatzeko. Batzordearen, lantaldearen eta mahaien funtzionamendua eta osaera arautzen dituen barne araudia idatzi zen.



NAFARROAKO ERRIBERAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESKUALDE ESTRATEGIA (NE EAEE)

HARREMANETARAKO DATUAK


EDER Partzuergoa

- ✉ Yehuda Ha Levi plaza z.g.
31500 Tuteria (Nafarroa)
- ✉ eder@consorcioeder.es
- ☎ 948 84 73 56

PROIEKTUAREN TESTUINGURUA

Nafarroako Erriberako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (NE EAEE) 2020ko EUROPA Estrategiaren erronkari erantzuten dio. Azken estrategia horrek helburu du krisialdi ekonomikotik indartuta ateratzea, eta, horretarako, EBko programen eta politiken ahalegina herrialde ki-deen arteko lehia eta konbergentzia sustatzera bideratzen du; bereziki, arlo hauetan: ikerketa eta berrikuntza; ETEei laguntzea; hezkuntza eta lanbide heziketa; kalitatezko enplegua; klima aldaketaren aurkako borroka; baliabideetan efizientea den eta karbono gutxi erabiltzen duen ekonomia batera aldatzea, eta produktibitatea hobetzea, gizarte kohesio handiagoarekin bat etorritik. EUROPA 2020 Estrategiak hiru ardatz nagusi ditu: hazkunde adimentsua, hazkunde jasangarria eta hazkunde integratzailea.

Horretan oinarrituta, EBk esparru estrategiko bateratua ezarri du, eta, horren bidez, estatu ki-deek «espezializazio adimentsuaren estrategia nazionalak edo eskualdekoak garatu behar dituzte, hala dagokienez, beren erreforma programekin bat etorritik».



Foru Komunitateak Nafarroako eta Nafarroako Erriberako Espezializazio Adimentsuaren 2016-2030eko Estrategia (S3) onartu zuen 2017an, eta NE EAEE egin eta onartu, lurraldeko plan estrategiko gisa; «ekonomiaren eta lurraldearen eraldaketarako agenda integratua» izanen da, eta eskualdearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatuko du.

GAUZATZE ALDIA

2017ko urtariletik azarora



HELBURUAK

- ✓ Sozializatzea eta NE EAEE ezagutzera ematea.
- ✓ Garapenaren helize laukoitzeko eragileek (ekoizpen sektorea; gobernu eta administrazio publikoa; gizartearen eta herritarren parte-hartzea; hezkuntza eta ezagutza) NE EAEE prestatzen eta ezartzen parte hartzea.
- ✓ Nafarroako Erriberaren eta lurraldean gauzatuko diren jarduketan egoerari buruz eztabaidatzea eta proposamenak egitea, horiek gauzatzeko lehentasunezko zat jotzen diren arlo ekonomikoari eta lehiakortasun faktoreei dagokienez.
- ✓ Eskualde mailan hausnarketarako guneak eta sinergiak sortzea.
- ✓ Eragile publiko eta pribatuen arteko lan-kidetza oinarritutako gobernantza eredu berrietan heztea eta horietarantz aurrera egitea.

LORTUTAKO EMAITZAK

Parte-hartze prozesuan bai talde bultzatzaileak bai mahai tematikoek lortutako proposamen guztiak, lan saio bakoitzaren aktetan jaso dira.

Egindako parte-hartze saioen kopurua (12 saio) eta prozesuak izan duen parte-hartze handia kontuan hartuta (200 parte-hartzaile baino gehiago), ekarpen asko lortu dira (1.887, guztira).

Ekarpen horiek lan saioetan landutako hausnarketa eta proposamen guztiak biltzen dituzte, NE EAEE estrategian garatu beharreko printzipio, erronka eta proiektuei buruzko hausnarketa kolektiboa egiten lagundu baitute.

Zehazki, parte-hartze prozesuaren bidez lortutako ekarpenak AMIA diagnostiko batean eta Nafarroako Erribera garatzeko lehenetsitako sektore ekonomikoaren eta NE EAEE estrategiaren arteko elementu komunei lotutako garapen helburu batzuen egituraketan bildu ziren.

Parte-hartzearen emaitzak NE EAEE estrategian txertatzeaz gain, talde bultzatzailean eta mahai sektorialetan parte hartu zuten pertsonei aurkeztu zitzaizkien, Tuteran eta Azkoienekin egin ziren itzulera jardunaldietan.

INDARGUNEAK

- ✓ Lehen esperientzia eskualde mailako espezializazio adimentsuaren estrategia bat

zehazten eta onartzen, Nafarroan S3 onartu zenetik.

- ✓ Parte-hartze prozesua planifikatzea, NE EAEE estrategia egiteko faseetan oinarrituta, parte hartzeko eta informatzeko tresnak uztartuta eta prozesua gauzatzeko behar adina baliabide ekonomiko eta tekniko izanda.
- ✓ Prozesuak motibazioa eta sinergiak sortzea lortu du eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalen artean, krisi ekonomikoaren ondorioak bortizki pairatu dituen lurralde batean; halaber, eragileen dinamismoa eta irtenbide kolektiboak bilatzea bultzatu du, lurralde estrategia adostu eta partekatu baten alde eginda.
- ✓ Parte hartu duten eragileek (talde bultzatzailea eta mahai sektorialak) erantzuteko ahalmena eta inplikazio handia dute, NE EAEE strategiaren inplementazio fasean parte hartzen jarraitzeko interesa agertu baitute.
- ✓ Inplementazio eta jarraipen sistema bat ezartzea, gobernantza eredu berrietarantz aurrera egitea ahalbidetuko duten partaidetza tresnak barne hartzen dituen.



AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

- ✓ Kultura parte-hartzailerik eza, oro har.
- ✓ Eragileek ez dute lurralde plangintza estrategikoko tresnei buruzko ezagutza handirik.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ Proiektuan lurraldeko funtsezko eragileak inplikatzeko (talde bultzatzaileak)
- ✓ Prozesurako baliabide ekonomiko eta tekniko egokiak izatea.
- ✓ Prozesua ongi planifikatzea eta bere helburuetara egokitutako partaidetza eta komunikazio tresnak hautatzea.
- ✓ Emaizari begira egotea.

IKASITAKO LEZIOAK ETA INSPIRAZIO IDEIAK

- ✓ Eragile instituzional, ekonomiko eta sozialen konpromisoa eta inplikazioa funtsezkoa da NE EAEE estrategiaren ezarpen prozesuan; izan ere, ahalegin bateratu eta komunak ahalbidetuko du Nafarroako Erriberak hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaileantze aurrera egitea, lurralde egoera eta biztanleen ongizatea eta bizi kalitatea hobetuta.
- ✓ Eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren garrantzia.



- ✓ Gobernantza eredu berrietarantz aurrera egiteko beharra
- ✓ Plangintzaren garrantzia eta parte-hartze prozesuen kalitatea.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO

NE EAEE estrategia 2017ko azaroaren 10ean onartu zuen EDER Partzuergoko Kontseilu Nagusiak, Batzorde Exekutiboak proposatuta.

Onartu ondoren, EAEE estrategia inplementatzeari ekin zitzaion. Horretarako, parte-hartze prozesu bizia, malgua eta harekin lotu nahi diren emaitzetara egokitutakoa zuen.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

NE EAEE inplementatzeko, parte-hartze tresna hauek ditu (jarduketa mailen arabera planifikatuta):

- ✓ **EDER Partzuergoko Batzorde Exekutiboak**

EDER Partzuergoko kide anitzeko organo exekutiboak eta kudeaketa organoak; besteak beste, NE EAEE strategiaren jarduketa ildoan inplementazioa bultzatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da.

- ✓ **Sustapen eta Jarraipen Batzordea**

Partaidetzako aholku organoak; NE EAEE strategiaren inplementazioa bultzatzeaz, jarraipena egiteaz, baloratzeaz eta hobetzeko proposamenak egiteaz arduratuko da, eta garapenaren helize laukoitzeko eragileek osatuko dute.

- ✓ **Partaidetza mahai sektorialak**

NE EAEE prestatzeko osatutako lantaldeen jarraitutasuna, mahaiak partaidetza eta elkarlan espazio direla eta eskualdearen lankidetzak eta ikuspegi komuna bultzatzen dutela ulertuta.

- ✓ **Proiektuak garatzeko batzordeak**

Sektorekako eta/edo sektorearteko lantalde espezifikoak sortzea, jarduketa ildo eta proiektu jakin batzuk garatzen laguntzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO

<https://www.consorcioeder.es/planes/ecei-rn/>

LEITZA KONTSUMITUZ CONSUMIENDO LEITZA

HARREMANETARAKO DATUAK

Leitzako Udala

✉ Elbarren 1, 31880 Leitza (Nafarroa)

📧 leitza@leitza.eus

☎ 948 51 00 09


PROIEKTUAREN TESTUINGURUA ETA DESKRIBAPENA

Erakunde eta elkarte mailan gogoeta partekatu bat zegoen: egungo sistema ekonomikorako alternatibak bilatu behar ziren, eta guztiontzat onuragarria izanen zen sistema lokalago bat eraiki behar zen. Horretarako, tokiko garapen jasagarria eta kontsumoa ongizate komunitarioaren ikuspegitik planteatu beharra zegoen, interes orokorra lehenetsita.

Proiektu hau Leitzako Udalak eta tokiko kontsumo taldeak sortu dute, tokiko produktuak kontsumitzea sustatzeko eta tokiko abeltzaintzaren eta nekazaritzaren balioa nabarmentzeko asmoz. Elikadura subiranotasunaren ikuspegitik heldu zitzaion gaiari.

Lehendik ere baziren gai horren inguruko tokiko dinamikak. 2014. urtean LeitzEKO kontsumo taldea sortu zen. Taldeak kontsumo arduratsuari eta elikadura subiranotasunari buruzko gaiak lantzen zituen.

Hasteko, tokiko produktuen azoka antolatu zuten azaroan, Leitzako eta Aresoko produktuak eta ekoizleak ezagutzera emateko. Balorazio



bilera batean ikusi zuten urrats gehiago eman behar zituztela bai tokiko produktuak sustatzeko bai tokiko elikagai sistema bultzatzeko.

Eta ongi zekiten gaia ez zutela administrazioak edo ekoizleek bakarrik hartu behar bere gain. 2016ko azaroan bilera ireki bat antolatu zuten, herritarrekin helburuak, metodologia eta zuzendaritza adosteko eta BERTATIK BERTARA taldea sustatzeko (dinamikaren talde eragilea).

2016ko azaroaren eta 2017ko irailaren artean, talde eragileak tokiko produktuari buruzko diagnostiko bat egin zuen auzolanean, hiru arlotan banatuta: ekoizpena (baserritarrak), sal-



menta (merkataritza eta ostalaritza) eta kontsumoa (herritarrek). Horretarako, hainbat inkesta egin ziren toki mailan: 48 baserriar edo ekoizle; 20 establezimendu eta 315 inkesta Leitzako eta Aresoko herritarrei (biztanleriaren % 10).

Parte-hartze prozesuari esker, tokiko produktuen egoerari buruzko diagnostikoa egin zuten, eta bi urterako (2018-2019) plan bat diseinatu, produktu horien ekoizpena, salmenta eta kontsumoa sustatzeko. Horrela, «LEITZA KONTSUMITUZ» izeneko prozesua jarri zen martxan. Aztiker Soziologia Ikerguneak diseinatu eta dinamizatu zuen prozesua, udalak aginduta.

HELBURUAK

- ✓ Partekatzea, sozializatzea eta tokiko produktuei buruzko diagnostikoa herritarrekin osatzea.
- ✓ Herriak, elikadura subiranotasunaren ikuspegitik abiatuta, hausnarketa bat egitea etorkizunera begira, eta erronka eta behar nagusiak antzematea.
- ✓ Tokiko produktuak sustatzeko ekintza plan bat sortzea.
- ✓ Berariazko helburuak: Udalaren eta herritarren arteko lankidetzaren bultzatzea; taldean lan egiteko espazioak eta sinergiak sortzea; kultura parte-hartzailea sustatzea; lehen sektorea indartzea.

GAUZATZE ALDIA

2016 - 2017



LORTUTAKO EMAITZAK

Planak 30 ideia biltzen ditu. Lehentasunen arabera adostu dira, eta ordenatu eta iragankortu egin dira.

Talde eragile bat sortu da, plana inplementatzeko eta jarraipena egiteko.

Bestalde, zera ikusi dugu:

- ✓ Orain arte sarerik osatzen ez zuten ekoizleak biltzen hasi dira.
- ✓ Kontsumo taldea eta IGE gaia lantzen ari dira, eskola jantokian txertatzeko.
- ✓ Udala eta tokiko ekoizleak elkarlanean ari dira asteroko azokaren proiektua lantzen.
- ✓ Dirudienez, saltokietan eta azoketan tokiko produktu gehiago eskatzen dituzte. Dendentan, Leitzako produktuak identifikatzen hasi dira.
- ✓ Bi ekoizle gazte baserri batean hasi dira lanean, eta postu bat jarri dute azokan.

INDARGUNEAK

- ✓ Izaten ari den eraldaketa eta izan duen eragina, oro har.
- ✓ Orain arte udalerriko dinamiketan parte hartzen ez zuten sektoreentzako espazio bat ireki da.
- ✓ Talde eragile bat sortu da, plana inplementatzeko eta jarraipena egiteko.
- ✓ Prozesuaren ezaugarrietako bat eragileen aniztasuna izan da –proiektua hasi baino lehen egindako eragileen maparen



arabera-, baita iritzien eta interesen aniztasuna ere.

- ✓ Ondoren hartutako konpromisoek prozesuaren legimititatea bermatzen dute.
- ✓ Jarraipen batzorde bat eta lantaldeak sortu dira hiru ildoak lantzeko: ekoizpena, kontsumoa eta sentsibilizazioa.
- ✓ Herritar batzuk elkartu dira zenbait proiektutan lan egiten jarraitzeko.

AURKITUTAKO ZAILTASUNAK

Ekintza planean jasotako proiektu batzuk gauzatzeko orduan, finantzaketa handia behar duten erakundeekiko edo udalaz gaindiko beste erakunde batzuekiko mendekotasuna dago.

ELEMENTU BIDERATZAILEAK

- ✓ LeitzEKO kontsumo taldeak sentsibilizatzeke eta sareak sortzeko bi urtetan zehar egindako lana.
- ✓ Helburu komunak partekatzea eta komunitatearen ongia nabarmentzea.
- ✓ Prozesuaren kanpo dinamizatzailerik bat, prozesuaren emaitzak zabaltasunez eta interes propioari gabe ikusten eta irakurtzen dakiena.
- ✓ Komunikazioari dagokionez, tokiko hedabideak erabiltzeaz gain, gonbidapen pertsonalizatuak banatu ziren eskuz. Horrek proiektua hobeki azaltzen eta parte-hartzea handitzen lagundu zuen. Gainera, informazio guztia udalaren webgunean egon da ikusgai.

IKASITAKO LEZIOAK ETA INSPIRAZIO IDEIAK

- ✓ Gertuko komunikazioak parte-hartzea errazten du.



- ✓ Landuko den gaiari interes orokorraren eta komunitarioaren ikuspegia emateak prozesua aberasten du.

EKIMENERAKO AURREIKUSITAKO ETORKIZUNA

- ✓ Ekintza plana asmo handiagoko prozesu baten barruan sartzen dugu: elikadura subiranotasuna.
- ✓ Herritarren prozesuen eta aldaketekin lotutako prozesuen ezaugarri nagusia erritmo aldaketak dira. Hala ere, uste dugu planean zenbat eta gehiago aurreratu, orduan eta inplikazio handiagoa lortuko dugula herritarren aldetik, eta plana erabat implementatu eta hobetuko dugula.
- ✓ Plana berrikusi, eta beste bat sortu beharko da. Halaber, ikusi dugu toki mailatik eskualde mailara igaro behar dugula.

EKIMENA DENBORAN ZEHAR MANTENTZEKO GAKOAK

- ✓ Planaren jarraipena egiteko batzorde bat eta hainbat lantalde sortu ditugu, ekimenak aurrera eramateko.
- ✓ Gainera, sendotu egin da elikadura subiranotasunarekin eta lehen sektorearekin lotutako lana aurretik eginga zuten elkarte eta taldeekiko harremana.
- ✓ Horrek inplikazioari eusten eta ekintza berriak aurreikusten laguntzen du, plana aberasten eta ekimenak sustatzen jarraitzeko.



